



SEGIMENDU-TXOSTENA

2001. URTEA

AURKIBIDEA

Orrialdea

1. AURKEZPENA	5
2. IZARTU PROGRAMAREN 2001. URTEKO LABURPEN EXEKUTIBOA	7
2.1. ESKU-HARTZEKO ESPARRUAK	10
2.1.1. Ardatzak eta neurriak: Jarduerak	11
2.1.2. Ardatzak eta neurriak: Inbertsioak	15
2.1.3. Ardatzak eta neurriak: 2001. urteko aurrerapen finantzarioa	16
2.2. LURRALDE-ESPARRUAK	20
2.2.1. Eskualdeak: Jarduerak	20
2.2.2. Eskualdeak: Inbertsioak	22
2.2.3. Eskualdeak: 2001. urteko aurrerapen finantzarioa	25
3. IZARTU PROGRAMEK GIZARTE-KOHESIOKO HELBURU OROKORRARI EGINDAKO EKARPENA.	28
3.1. HELBURU OROKORRAK	30
3.1.1. Helburu orokorrak: Jarduerak	30
3.1.2. Helburu orokorrak: Inbertsioak	32
3.1.3. Helburu orokorrak: 2001. urteko aurrerapen finantzarioa	33
3.2. GIZARTE-KOHESIOKO PROIEKTUEN AZTERKETA KUALITATIBOA, GIZARTE-KOHESIOKO HELBURUEI DAGOKIENEZ	34
3.2.1. Higitutako eta/edo abandonatutako tokiak berreskuratu eta hobetzea, tokiko komunitateek haiek erabiltzeko aukera izan dezaten	34
3.2.2. Tokiko enplegu-ekimenak sustatzea	44
3.2.3. Diskriminazio positiboko jarduerak garatzea, gizarte- eta lan-bazterketaren arriskupean dauden kolektiboen alde	50



3.2.4. Eremu urbanoak lurraldean integratzea, irisgarritasuna hobetuz	53
3.2.5. Jarduera urbanoen ingurumen-eragina txikitzea helburu duten jarduerak garatzea	58
3.2.6. IKTak txertatzea, eremu urbanoetako gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzeko	61
3.2.7. Laguntza teknikoa	64
4. OHAR OROKORRAK	65
1. ERANSKINA: IZARTU PROGRAMEN KOADRO FINANTZARIOAK	

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Orrialdea

1. grafikoa: IZARTU Programen zerrenda, eskualdeen arabera	8
2. grafikoa: Inbertsio osoaren zerrenda eta emandako dirulaguntza- portzentajea, eskualdeen arabera	9
3. grafikoa: Proiektuen xedeak -Antolakuntzako eta Birgaitzeetarako azpiegiturak-	12
4. grafikoa: IZARTU programen izaera integrala	13
5. grafikoa: IZARTU programek esku-hartzeko esparru bakoitzean duten parte-hartzea	14
6. grafikoa: Proiektuek esku-hartzeko esparru bakoitzean duten parte- hartze finantzarioaren ehunekoa, ARDATZEN arabera	16
7. grafikoa: 2001. urteko jardueren aurrerapena, esku-hartzeko esparru bakoitzean egindako gastuaren arabera	18
8. grafikoa: IZARTU programen 2001. urteko aurrerapenaren azterketa, esku-hartzeko esparru bakoitzean aurreikusitako eta egindako gastuaren arabera	19
9. grafikoa: Eskualdeak esku-hartzeko esparruen arabera nola banatzen diren, aurkeztutako proiektuen arabera	21
10. grafikoa: IZARTU programen portzentajea, batez besteko inbertsioaren arabera	23
11. grafikoa: IZARTU programen batez besteko inbertsioa biztanleko	23
12. grafikoa: Udalak jasotako dirulaguntzaren arabera nola banatzen diren ...	24
13. grafikoa: 2001. urteko jardueren aurrerapena, eskualde bakoitzean egindako gastuaren arabera	26
14. grafikoa: 2001. urteko IZARTU programen aurrerapenaren azterketa, eskualde bakoitzean aurreikusitako eta egindako gastuaren arabera	27
15. grafikoa: Esku-hartzeko esparru bakoitzean bildutako proiektuen banaketa, beren helburu orokorren arabera	31
16. grafikoa: Gizarte-Kohesioko helburu orokorren inbertsio-portzentajea	32
17. grafikoa: Helburu orokorren 2001. urteko aurrerapena, aldi osorako aurreikusitako inbertsio osoari dagokionez egindako gastuaren arabera	33



TAULA-AURKIBIDEA

Orrialdea

1. taula: IZARTU programetan aurkeztutako proiektuen azterketa, esku-hartzeko esparruen arabera	11
2. taula: IZARTU programen inbertsio osoaren azterketa, esku-hartzeko esparruen arabera	15
3. taula: IZARTU programen inbertsio osoaren azterketa, parte hartzen duten eskualdeen eta udalen arabera	22
4. taula: Inbertsioaren eta dirulaguntzaren azterketa, onuradunen arabera ...	24

1. AURKEZPENA

Euskadi 2000 Hiru Ekimenaren estrategia aktiboak helburu hirukoitza du oinarrian: konbergentzia erreala, gizarte-kohesioa eta modernizazioa. Beraz, ekimen honek, enpleguaren eta errentaren bidez, konbergentzia erreala lortzea du xede: gizarte- eta lurralde-kohesioa, bizi-kalitatea eta modernizazioa. **Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak ekimen berritzaile bat aurkeztu du, egoera okerreanean dauden eremuetarako eskuartze-eremu berri bat, oinarritzat biziberritze urbano integralerako politika duena, azken buruan toki-administrazioak euskarri dituen. Eremu berri honek -Euskal Autonomia Erkidegoko Biziberritze Urbanorako Programa Integrala- honako behar honi egiten dio aurre: gizarte-kohesioko sektorekako politikak higatuen dauden eremuetarako ekimen eta neurri integralagoekin osatzeko beharrari.**

Xede horrekin, Izartu programa honetan datza: toki-administrazioek aurkeztuta, Euskadiko hirigune higatuak biziberritzeko ekimen integral eta integratuen aldi bereko finantzazioan, funts ez-ohiko baten bidez. **Programa honen berrikuntza, bereziki, bi puntu hauetan dago:** higatutako hiriguneen berreskurapen-integralerako ekimenak landu eta burutzea **toki-eremura transferitzen da, eta, aurreko ikuspegiekin ez bezala, ez dira bereizita dauden ekimen sektorialak edo tokiko erakundeen gainetiko instituzioen eskumenak; alta, programa integratuak dira, eta, beraz, tokiko erakundeen eskumen-esparruen barruan sartzen diren lan-ildoak eta proiektu artikulatu eta osagarriak dira, eremu horietako arazo jakinei era globalean ekiten dietenak.**

Programaren xede nagusia, beraz, EAEn lurralde-, ekonomia- eta gizarte-egituraketa eta -kohesio handiagoa lortzea da.

Ekimena arautzen duen 236/2000 Dekretuak proposamen batzuk barne hartzen ditu **IZARTU** programak batera finantzatzeko funtsezko elementutzat; proposamen horiek, hain zuzen, udaletan egindako **diagnostikoak** biltzen dituzte, inbertsio-asmoari lotutako **helburu eta estrategien** plangintza egitetik abiatzen direnak. Kontuan hartzen dira, halaber, bai proposamenak **zeharkakoak** izatea -hau da, politika sektorial zehatz batekin zerikusia izaki, administrazioaren beste maila baten laguntza ere jaso lezaketen proiektuak izatea-, bai tokiko **partenariadua** -hau da, udalean biltzen diren sentsibiltate guztiek parte hartzeko aukera izatea-.

Programak **eragin inbertitzaile nabarmena** izan du Euskadiko udaletan. Izan ere, ekimen honen 2001-2005 lehenengo deialdian, **udalek egin zuten laguntza finantzarioaren eskaera 61.000 milioi pezetatik gorakoa izan zen, eta, horri, Eusko Jaurlaritzak hasierako 15.000 milioi pezetako diru-hornidura handituz erantzun zion, eta gaur egungo 25.000 milioi pezetan ezarri (150 milioi €).**

Guztira, 48 udalerriri dagozkion biziberritze urbanorako **51 programa integral** dira **IZARTU**k laguntzen dituenak. Bere aldi bereko finantzazioaren mugetan, **guztizko ahalegin inbertitzailea 37.000 milioi pezetakoa da (221 milioi €)** diruz lagun daitezkeen ekimenetan, eta horrekin, aurreikusita zegoen azken inbertsioa laukoiztu egin da.

2. IZARTU PROGRAMAREN LABURPEN EXEKUTIBOA


Biziberritze Urbanorako Programa Integralaren 2001-2005 deialdian 58 IZARTU programa aurkeztu ziren, Euskadiko 54 udalen aldetik. Horiek eremu urbanoa onera ekartzeko hainbat jarduera integral proposatzen zituzten, era askotako alderdiei loturik: higitutako gune urbanoak berreskuratu eta hobetzea; tokian tokiko enplegu-ekimenak sustatzea; diskriminazio positiboko jarduerak abian jartzea, gizarte- eta lan-bazterketaren arriskupean dauden kolektiboen alde; lurraldean integratzea irisgarritasun-arazoak dituzten eremuak, periferian egoteagatik arazoak dituzten eremuak, eta abar.

Programa oro har nola garatu den ikusita, Euskadiko udalek modu ezin hobean hartu dutela esan daiteke, nola aurkeztu diren ekimen-kopuruarengatik, hala azkenean onartuak izan diren programa-kopuruarengatik eta horrek Gizarte-Kohesioko xedeari dagokionez eragiten duen inbertsioarengatik. **Biziberritze Urbanorako Programa Integrala Euskal Autonomia Erkidegoko 48 udalentsat da onuragarri, 51 IZARTU programatan egindako diru-ekarpenen bidez. 2 udalek, Lezo eta Oiartzunek, baterako programa aurkeztu dute**, baldintza sozio-ekonomikoetan ageri dituzten antzekotasunengatik. Eta, beste alde batetik, beren herritar-kopuruarengatik edo desberdintasun sozio-ekonomikoengatik **50.000 biztanle baino gehiagoko 4 udalek jarduera integraleko bi programa bereizi aurkeztu dituzte:**

- Barakaldo: *Gurutzeta eta Lutzana*
- Bilbao: *Bilbao Zaharra eta Otxarkoaga*
- Donostia: *Altza eta Loiola*
- Portugalete: *Azeta eta San Roke*

Grafiko honetan azaltzen dira programan parte hartzen duten eskualdeak eta programak:


1. grafikoa: IZARTU programen zerrenda, eskualdeen arabera.



Udal hauek integrazio urbanoko arazoak dituzte, eta arazo horiei aurre egitea helburu duen **jarduera integralen multzoan 222 milioi € inguruko inbertsioa egin da** (37.000 milioi pezeta inguru). IZARTU programak proiektuei emandako dirulaguntza kantitate horren %70 da gutxi gorabehera -150 milioi €-. Izan ere, dekretuak inbertsioaren %50eko laguntza ezartzen du, egoera txarrean dauden eskualdeetan kokatutako udal edo eremuetan izan ezik; azken horietan, laguntza %75ekoa izango da.

Grafiko honetan azaltzen da inbertsioak eskualdeen arabera nola banatzen diren:

2. grafikoa: Inbertsio osoaren zerrenda eta emandako dirulaguntza-portzentajea, eskualdeen arabera.



2.1. ESKU-HARTZEKO ESPARRUAK

Biziberritze Urbanorako Programa Integralaren esku-hartzeko esparruen xedea IZARTU programetako jarduerak gutxieneko homogeneousun batez elkartzea da, baita laguntzen aplikazio orokorraren segimendua eta azterketa erraztea ere. Esparru horiek bitan banatzen dira: orokorrak -ARDATZAK- eta espezifikoak - NEURRIAK-. 5 ARDATZ eta 20 NEURRI aurreikusi dira:

1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA ETA LANA

- 1.1. Jarduera sustatzeko egiturak sortu eta garatzea.
- 1.2. Ekoizpen-azpiegitura sortu eta garatzea.
- 1.3. Enpresariei, enpresa txiki eta ertainei eta artisau-enpresei laguntzea.
- 1.4. Tokiko sustapena, turismoa eta ondarea.

2. ARDATZA. OINARRIZKO AZPIEGITURA LOKALAK

- 2.1. Garraio-azpiegiturak
- 2.2. Telekomunikazioko eta informazio-gizarteko azpiegitura
- 2.3. Azpiegitura energetikoa
- 2.4. Ingurumen-azpiegitura
- 2.5. Antolakuntzarako eta birgaitzeetarako azpiegiturak
- 2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura
- 2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura.
- 2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura

3. ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTERATZEA

- 3.1. Lan-merkatuaren politikak
- 3.2. Gizarteratzea
- 3.3. Aukera-berdintasuna
- 3.4. Hezkuntza eta prestakuntza

4. ARDATZA. OINARRIZKO EGITURA LOKALAK SORTU ETA GARATZEA.

- 4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak.
- 4.2. Herritarren segurtasuna.
- 4.3. Gizarte-hezkuntza eta -prestakuntza.

5. ARDATZA. HAINBAT

- 5.1. Laguntza teknikoa

2.1.1. ARDATZAK ETA NEURRIAK: JARDUERAK

Esparru hauei dagokienez, dirulaguntza jaso duten udalek 359 proiektu aurkeztu dituzte guztira, 51 IZARTU programatan banaturik. Bi gauzak erakusten digute proiektu horiek integralak direla: batetik, kopuruak -zazpi proiektu programako, batez beste-, eta, bestetik egin beharreko jarduerak era askotakoak izateak -era askotako azpiegitura zehatzak sortzea (energetikoak, sozialak, kulturalak, ingurumen-mailakoak...), lana eta enpresak sustatzeko programak, gizarteratzekoak, hezkuntzakoak, berdintasunekoak...-.


1. taula: IZARTU programetan aurkeztutako proiektuen azterketa, esku-hartzeko esparruen arabera.

ARDATZAK ETA NEURRIAK	PROIEKTUAK	
	KOPURUA	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA ETA LANA	39	%11
1.1. Jarduera sustatzeko egiturak sortu eta garatzea.	12	%3
1.2. Ekoizpen-azpiegitura sortu eta garatzea.	5	%1
1.3. Enpresariei, enpresa txiki eta ertainei eta artisau-enpresei laguntzea.	11	%3
1.4. Tokiko sustapena, turismoa eta ondarea.	11	%3
2. ARDATZA. OINARRIZKO AZPIEGITURA LOKALAK	258	%72
2.1. Garraio-azpiegiturak	23	%6
2.2. Telekomunikazioko eta informazio-gizarteko azpiegitura	6	%2
2.3. Azpiegitura energetikoa	1	%0
2.4. Ingurumen-azpiegitura	25	%7
2.5. Antolakuntzako eta birgaitzeetarako azpiegiturak	148	%41
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura	12	%3
2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura	40	%11
2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura	3	%1
3. ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTERATZEA	28	%8
3.1. Lan-merkatuaren politikak	9	%3
3.2. Gizarteratzea	6	%2
3.3. Aukera-berdintasuna	6	%2
3.4. Hezkuntza eta prestakuntza	7	%2
4. ARDATZA. OINARRIZKO EGITURA LOKALAK SORTU ETA GARATZEA.	11	%3
4.1. Tokiko oinarrizko zerbitzuak	8	%2
4.2. Herritarren segurtasuna	-	-
4.3. Gizarte-hezkuntza eta -prestakuntza	3	%1
5. ARDATZA. HAINBAT	23	%6
5.1. Laguntza teknikoa	23	%6

Taularen arabera ikus daitekeenez, **ekintza gehienak 2. ARDATZEAN** -Oinarritzko **Azpiegitura Lokalak**- biltzen dira (ekintzen %72), eta, bereziki, antolakuntzako eta birgaitzeetarako azpiegitura neurrian (dirulaguntza jasotzen duten jardueren %40 baino gehiago biltzen ditu). Hala, laguntzen onuradun izan diren 51 IZARTU programei dagokienez, udalen %84k antolakuntzako eta birgaitzeetarako azpiegiturekin zerikusia duen proiekturen bat aurkeztu dute.


Hala ere, eta txosten honen 3. kapituluari ikusiko dugunez, **azpiegitura horietako xedeak hirigintza-neurritik haratago doaz**. Hona xede horietariko batzuk: **enplegua sortzea**, enpresa-jardueretarako baliabideak eta guneak hobetuz; **gune periferikoak sare urbanoan txertatzea**, komunikazioak eta sarbideak hobetuz, eta laguntza-, gizarte- eta kultura-mailako ekipamenduak hobetuz; **irudi eta ingurumen urbanoa hobetzea**, higatutako eremuak berreskuratuz, eraikinak eta etxebizitzak birgaituz, elkarrekin bizitzeko eta aisialdirako guneak sortuz, instalazio eta zerbitzu urbanoak berrantolatuz, urbanizatuz eta hobetuz... Ildo horretan, antolakuntzako eta birgaitzeetarako azpiegiturak neurria aztertuta (proiektuen %40 biltzen du), ohartzen gara azpiegitura horien xedeak era askotakoak direla eta gizarte-kohesioko xede orokorraren inguruan biltzen direla:

3. grafikoa: Antolakuntzarako eta birgaitzeetarako azpiegituren xedeak



Bestalde, itxuraz kontzentrazioa nabaria bada ere, **IZARTU** programek batez beste 3 eta 4 neurriren artean biltzen dituzte, eta programa gehienek, gutxienez, 2 ARDATZETAN parte hartzen dute. Ildo horretan, 12 proiektuk bakarrik jarduten dute ARDATZ bakar batean, eta udalen %40k 4 neurri baino gehiagotan hartzen du parte bere jardueren bidez. Xedeen heterogeneotasun horrek argi eta garbi adierazten digu IZARTU programak izaera integrala duela.


4. grafikoa: IZARTU programen izaera integrala



Parte-hartzearen arabera, azken xedea gizarte- eta ekonomia-kohesioa izanik, udal onuradunen beharretara ondoen egokitzen diren neurriak hauek dira, ordena egokian zerrendatuta:

- *Antolakuntzarako eta birgaitzeetarako azpiegiturak*
- *Aisia- eta kultura-azpiegiturak*
- *Ingurumen-azpiegiturak*
- *Garraio-azpiegiturak*
- *Jarduera sustatzeko egiturak sortu eta garatzea.*
- *Gizarte- eta osasun-azpiegiturak*
- *Enpresariei, enpresa txiki eta ertainei eta artisau-enpresei laguntzea.*
- *Tokiko sustapena, turismoa eta ondarea.*

5. grafikoa: IZARTU programek esku-hartzeko esparru bakoitzean duten parte-hartzea.



2.1.2. ARDATZAK ETA NEURRIAK: INBERTSIOA


Bai inplikaturako jarduera-kopuruaren bai horrelako inbertsioek eragin ohi duten gastuaren ondorioz, **2. ARDATZA** da -Oinarrizko Azpiegitura Lokalak- Biziberritze Urbanorako Programa Integralaren inbertsio osoaren aurrekonturik handiena duena. Ardatz horren barruan, antolakuntzarako eta birgaitzeetarako azpiegiturekin zerikusia duten ekintzak nagusitzen dira, finantziazio osoaren ia %50 hartzen baitute.

2. taula: IZARTU programen inbertsio osoaren azterketa, esku-hartzeko esparruen arabera

ARDATZAK ETA NEURRIAK	INBERTSIOA	
	KOP.	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA ETA LANA:	13.570.215	%6,1
1.1. Jarduera sustatzeko egiturak sortu eta garatzea.	3.748.204	%1,7
1.2. Ekoizpen-azpiegitura sortu eta garatzea.	4.040.705	%1,8
1.3. Enpresariei, enpresa txiki eta ertainei eta artisau-enpresei laguntzea.	1.399.825	%0,6
1.4. Tokiko sustapena, turismoa eta ondarea	4.381.481	%2,0
2. ARDATZA. OINARRIZKO AZPIEGITURA LOKALAK	192.096.067	%86,7
2.1. Garraio-azpiegiturak	27.298.312	%12,3
2.2. Telekomunikazioko eta informazio-gizarteko azpiegitura	1.252.451	%0,6
2.3. Azpiegitura energetikoa	414.698	%0,2
2.4. Ingurumen-azpiegitura	18.360.869	%8,3
2.5. Antolakuntzarako eta birgaitzeetarako azpiegiturak	108.414.524	%49,0
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura	7.970.976	%3,6
2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura	27.509.349	%12,4
2.8. Hezkuntza- eta Prestakuntza-azpiegitura	874.887	%0,4
3. ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTERATZEA	10.778.856	%4,9
3.1. Lan-merkatuaren politikak	2.819.087	%1,3
3.2. Gizarteratzea	4.283.342	%1,9
3.3. Aukera-berdintasuna	1.220.910	%0,6
3.4. Hezkuntza eta prestakuntza	2.455.518	%1,1
4. ARDATZA. OINARRIZKO EGITURA LOKALAK SORTU ETA GARATZEA	3.213.588	%1,5
4.1. Tokiko oinarrizko zerbitzuak	2.934.875	%1,3
4.2. Hiritarren segurtasuna	-	-
4.3. Gizarte-hezkuntza eta -prestakuntza	278.713	%0,1
5. ARDATZA. HAINBAT	1.787.698	%0,8
5.1. Laguntza teknikoa	1.787.698	%0,8

Antolakuntzarako eta birgaitzeetarako azpiegituren ondoren, aisia- eta kultura-azpiegituretan, garraio-azpiegituretan eta ingurumen-azpiegituretan eginiko inbertsioak nabarmentzen dira. 2. ARDATZAREN ondoren -Oinarrizko Azpiegitura Lokalak-, 1. ARDATZA -Ekoizpen-Ingurunea eta Lana- eta 3. ARDATZA -Giza Baliabideak eta Gizarteratzea- dira finantziaziorik handiena jasotzen duten esku-hartzeko esparruak.

6. grafikoa: Proiektuek esku-hartzeko esparru bakoitzean duten parte-hartze finantzarioaren ehunekoa, ARDATZEN arabera.



2.1.3. ARDATZAK ETA NEURRIAK: 2001. URTEKO AURRERAPEN FINANTZARIOA


2001. urtean zehar 13.654.731 €-ko gastua egin da IZARTU programek osatzen duten proiektuetan, Biziberritze Urbanorako Programa Integralaren inbertsio osoaren %6, hain zuzen ere. Proiektuak abian jartzearekin batera, laguntza teknikoari lotutako jarduerak burutzen dira; horiek alde batera utzita, eta 2001. urtean zehar egindako jardueren dagokienez, hauek dira jaso beharreko inbertsioaren arabera aurreratuen dauden neurriak:

- **Telekomunikazioko eta informazio-gizarteko azpiegiturak:** 2001. urtean 295.970 €-ko gastua egin zen, eta inbertsio osoaren %24 estaltzen dute.

- **Tokiko sustapena, turismoa eta ondarea:** 2001. urtean 558.196 €-ko gastua egin zen, eta neurri horretarako programatutako inbertsio osoaren %13 estaltzen dute.
- **Azpiegitura energetikoak:** aurrekoak bezala, 2001. urtean zehar neurri horretan egin beharreko inbertsio osoaren %13 estali dute, eta 51.910 €-ko gastua egin da.
- **Jarduera sustatzeko egiturak sortu eta garatzea:** 2001. urtean 443.193 €-ko gastua egin zen, eta inbertsio osoaren %12 estaltzen dute.
- **Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegiturak:** azkenean, 2001. urtean 94.795 €-ko gastua egin zen neurri horretan, horretarako programatutako inbertsio osoaren %11, hain zuzen.


Aitzitik, gizarte-hezkuntzako eta -prestakuntzako ekintzak, gizarteratzekoak eta lan-merkatuaren politiketakoak dira atzeratuen daudenak, 2001. urtean egindako gastuak ez baitu aldi osorako (2001-2005) haietarako programatu den inbertsio osoaren %1 gainditzen. Hori hala da neurri horietako gehienak birgaitzeko azpiegituraren baten barnean garatu behar direlako, behin birgaitzeko azpiegitura horiei amaiera eman zaienean (esaterako: eraikina birgaitzea musika-eskola hartzeko...).

7. grafikoa: 2001. urteko jardueren aurrerapena, esku-hartzeko esparru bakoitzean egindako gastuaren arabera.



2001. urterako aurreikusitako gastuaren arabera, 33.077.277 €, hasiera batean programatutakoaren %41 gastatu da, 13.654.731 €. 1. **ARDATZEAN -Ekoizpen-Ingurunea eta Lana-** biltzen diren proiektuak dira hasierako plangintzari gehien lotzen zaizkionak. Proiektu horietarako 2,2 milioi € inguruko gastua programatu da, eta dagoeneko planifikatutakoaren %57 gastatu da, 1,2 milioi €. Gainerako esku-hartzeko esparruetan desoreka handiagoa da aurreikusitako gastuaren eta lehen aldi honetan gastatu denaren artean. Hori bereziki nabarmena da 4. **ARDATZEAN -Oinarritzko Egitura Lokalak Sortu eta Garatzea-**: 35.076 €-ko gastua egin da, 2001. urtean programatutakoaren %7 bakarrik.

8. grafikoa: IZARTU programen 2001 urteko aurrerapenaren azterketa, esku-hartzeko esparru bakoitzean aurreikusitako eta egindako gastuaren arabera



2.2. LURRALDE-ESPARRUAK

IZARTU programaren finantziazioa jaso ahal izateko, *sine qua non* baldintza da **onuradun diren 51 proiektuei dagozkien eremu urbanoak egoera txarrean egotea eta hondatze sozio-ekonomikoa zehazteko erabiltzen diren irizpide hauetatik gutxienez hiru izatea:**

- *Lan-merkatua egoera txarrean egotea: langabezia-tasa altua, jarduera-tasa baxua...*
- *Jarduera ekonomikoko maila txikia.*
- *Pobreziako eta gizarte-bazterketako arazoak egotea.*
- *Hezkuntza-maila baxua, prestakuntza-falta nabaria eta eskola uztearen indize altua.*
- *Kriminalitate- eta delinkuentzia-arazo larriak izatea.*
- *Bertan bizi den biztanleriak behera egitea.*
- *Eraikitako azaleran eta ekipamenduetan urritasunak izatea.*
- *Higatutako ingurunea izatea.*
- *Herria zatituta egotea: eremua periferikoa izatea, edo udalerriarekin edo beste udalerri batzuekin gaizki komunikatuta egotea edo horietatik bereizita.*

2.2.1. ESKUALDEAK: JARDUERAK

Txoriherri, Plentzia-Mungia, Markina-Ondarroa, Ibaizabaleko eskuinaldea, Enkartzazioak, Durangaldea, Bilbao, Arratia-Nerbioi, Tolosa, Goierri eta Ekialdeko Ingurabidea eremuetako jardueren %80 baino gehiago Azpiegituretan biltzen dira. Bestalde, 1. ARDATZEAN ere -Ekoizpen-Ingurunea eta Lana- proiektuen zati handi bat biltzen da, bereziki Nerbioi Garaia, Kantabria Arabarra, Goierri, Gernika-Bermeo, Donostia, Ibaizabaleko eskuinaldea, Ezkerraldea eta Deba Beherea eskualdeetan. Gernika-Bermeo, Bidasoa Beherea, Ezkerraldea, Donostia eta Deba Beherea eremuetan 3. ARDATZAREKIN -Giza Baliabideak eta Gizarteratzea- zerikusia duten hainbat jarduera biltzen dira. Azkenik, 4. ARDATZAREKIN -Oinarrizko Egitura Lokalak Sortu eta Garatzea- zerikusia duten proiektuei dagokienez, Gernika-Bermeo, Ezkerraldea, Donostia, Ekialdeko Ingurabidea eta Kantabria Arabarra eskualdeak nabarmentzen dira.

9. grafikoa: Eskualdeak esku-hartzeko esparruetan nola banatzen diren, aurkeztutako proiektuen arabera.



- 1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA ETA LANA
- 2. ARDATZA: OINARRIZKO AZPIEGITURA LOKALAK
- 3. ARDATZA: GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTERATZEA.
- 4. ARDATZA: OINARRIZKO EGITURA LOKALAK SORTU ETA GARATZEA.

2.2.2. ESKUALDEAK: INBERTSIOAK


Aurrekontua eskualdeetan nola banatzen den aztertzean, eskualde horietan IZARTU programak dituzten udalak hartu behar dira aintzat. Hori dela eta, jarraian azaltzen den taulan aztertzen dira bai IZARTU programek eskualdean egindako inbertsio osoa, bai inbertsioaren batez bestekoa parte hartzen duten udaletan.

3. taula: IZARTU programen inbertsio osoaren azterketa, parte hartzen duten eskualdeen eta udalen arabera

ESKUALDEAK	INBERTSIO OSOA	IZARTU PROGRAMEN KOPURUA	INBERTSIOAREN BATEZ BESTEKOA UDALEKO
Kantabria Arabarra	9.327.738	2	4.663.869
Bidasoa Beherea	6.053.627	1	6.053.627
Deba Beherea	21.210.263	6	3.535.044
Ekialdeko ingurabidea	13.450.938	3	4.483.646
Donostia	10.070.573	2	5.035.287
Goierri	15.623.493	5	3.124.699
Tolosa	3.901.289	1	3.901.289
Nerbioi Garaia	23.009.996	4	5.752.499
Arratia-Nerbioi	5.380.845	1	5.380.845
Bilbao	14.846.338	2	7.423.169
Durangaldea	10.733.482	3	3.577.827
Enkartzioak	12.674.353	4	3.168.588
Gernika-Bermeo	5.559.972	2	2.779.986
Ibaizabaleko eskuinaldea	4.438.669	1	4.438.669
Ezkerraldea	51.285.079	10	5.128.508
Markina-Ondarroa	4.035.281	1	4.035.281
Plentzia-Mungia	3.362.499	1	3.362.499
Txoriherri	6.562.852	2	3.281.426


Inbertsioaren batez bestekoa udaleko 4 milioi € ingurukoa bada ere, aurkeztu diren IZARTU programen heren batek baino gehiagok 6 milioi €-tik gora inbertitzen dituzte, eta %6k bakarrik 2 milioi € baino gutxiago, eskualdea zein den alde batera utzita.

10. grafikoa: IZARTU programen portzentajea, batez besteko inbertsioaren arabera




Inbertsio osoa nola banatzen den jakiteko, IZARTU programen diru-hornidura hori zenbat herritarri dagokien ere har dezakegu kontuan. Kasu batzuetan, onura ekonomiko hori udaleko herritar guztiei heltzen zaie, eta beste batzuetan, udaleko auzo edo eremu espezifiko bateko biztanleei soilik. **Guztira, 348.597 herritar dira onuradun, eta IZARTU programen batez besteko inbertsioa 1.750 €-koa da biztanleko.** Orobat, nabarmendu beharra dago auzo bakar batean jarduten duten IZARTU programen batez besteko inbertsioa udaleko herritar guztiengana heltzen diren proiektuena baino handiagoa dela.

11. grafikoa: IZARTU programen batez besteko inbertsioa biztanleko.



Kontuan hartu beharra dago jasotako dirulaguntza zenbatekoa den; izan ere, kasu batzuetan udalak jasotako dirulaguntza inbertsioaren %75ekoa da, eta beste batzuetan %50ekoa.

12. grafikoa: Udalak jasotako dirulaguntzaren arabera nola banatzen diren



Aurrekoak aintzat harturik, hauek dira onuradun diren herritar-kopuruaren arabera inbertsiorik handiena duten eskualdeak: Ibaizabaleko eskuinaldea, Tolosa, Bidasoa Beherea, Arratia-Nerbioi eta Enkartzioak.

4. taula: Inbertsioaren eta dirulaguntzaren azterketa, onuradunen arabera.

ESKUALDEAK	Onuradun diren herritar-kopurua	Eskualdeko inbertsio osoa	Batez besteko inbertsioa biztanleko	Dirulaguntzako %	Batez besteko dirulaguntza biztanleko
Kantabria Arabarra	29.447	9.327.739	317	%75	238
Bidasoa Beherea	4.257	6.053.627	1.422	%50	711
Deba Beherea	29.413	21.210.263	721	%75	541
Ekialdeko ingurabidea	28.617	13.450.938	470	%75	353
Donostia	17.476	10.070.573	576	%50	288
Goierri	26.978	15.623.493	579	%50	290
Tolosa	2.659	3.901.289	1.467	%50	734
Nerbioi Garaia	25.738	23.009.996	894	%75	671
Arratia-Nerbioi	3.963	5.380.845	1.358	%50	679
Bilbao	26.955	14.846.337	551	%75	413
Durangeldea	21.606	10.733.482	497	%50	248
Enkartzioak	12.048	12.674.353	1.052	%75	789
Gernika-Bermeo	19.261	5.559.972	289	%75	216
Ibaizabaleko eskuinaldea	2.552	4.438.669	1.739	%50	870
Ezkerraldea	62.697	51.295.079	818	%75	614

Markina-Ondarroa	10.247	4.035.281	394	%50	197
Plentzia-Mungia	12.807	3.362.499	263	%50	131
Txoriherri	11.876	6.562.852	553	%75	414


2.2.3. ESKUALDEAK: 2001. URTEKO AURRERAPEN FINANTZARIOA

Azkenik, eta aurreko atalean bezalaxe, lurraldeak eta eskualdeak banan-banan aztertu ditugu, aurreikusitako jardueri dagokienez 2001. urtean egindako gastuaren arabera. Lurralde bakoitzarentzat aurreikusitako inbertsio osoari dagokionez, Gipuzkoa da aurreratuen dagoen lurraldea: 2001. urtean 5.556.153 €-ko gastua egin da, hau da, aldi osorako inbertsio osoaren (70.310.183 €) %8. Bizkaian 141.899.366 €-ko inbertsioa aurreikusi da aldi osorako, eta horren %6 burutu da dagoeneko (8 milioi €). Azkenik, Araban 9 milioi € baino gehiagoko inbertsio osoa aurreikusi da, baina 2001. urtean zehar horren %1 baino ez da burutu (64.848 €).

Eskualdeen arabera, Bilbon aldi osorako (2001-2005) aurreikusitako inbertsio osoaren %21 egin da 2001. urtean (3 milioi € baino gehiagoko gastua). Ondoren, Ibaizabaleko eskuinaldea (653.877 €-ko gastua), Goierri (2 milioi €), Enkartzioak (1,5 milioi €), Bidasoa Beherea (653.877 €), Deba Beherea (2,3 milioi €) eta Durangaldea (1,2 milioi €) dira IZARTU programetan konprometitutako inbertsio osoari dagokionez aurreratuen dauden eskualdeak (inbertsio horren %13 eta %11 artean, 2001. urtean zehar).


Txoriherri, Arratia-Nerbioi, Donostia eta Ezkerraldea eskualdeak, ordea, ez dira oraindik konprometitutako inbertsioaren %1era iristen, 2001. urtean egindako gastuaren arabera. Dena den, esan beharra dago kasu batzuetan aurreikusita dagoela Izartu programak 2002. urtean gauzatzen hastea.

13. grafikoa: 2001. urteko jardueren aurrerapena, eskualde bakoitzean egindako gastuaren arabera



Bestalde, eta 2001. urtean egitea aurreikusi den gastuaren arabera, **Tolosa eta Ibaizabaleko eskuinaldea eskualdeak bat datoz hasiera batean aurreikusicitako plangintzarekin**, eta egin beharreko gastuari dagokionez (312.103 € eta 653.877 €, hurrenez hurren), **aurreikusicitako programazioaren %100 betetzen dute**. Ondoren, hauek dira programazioari gehien lotzen zaizkion eskualdeak: **Enkartazioak -%98 betetzen du** (1,5 milioi €)-, **Bilbao -%85 betetzen du** (3,2 milioi €)-, **Deba Beherea -%79 betetzen du** (2,3 milioi €)- eta **Goierri -%72 betetzen du** (2 milioi €)-. Gainerako eskualdeetan desorekak handiagoak dira, lehen aldi honetarako aurreikusicitakoaren eta azken buruan egin denaren artean.

14. grafikoa: IZARTU programen aurrerapenaren azterketa, eskualde bakoitzean aurreikusitako eta egindako gastuaren arabera



1. eranskinean eskaintzen den koadroan IZARTU programa bakoitzaren xehatze finantzarioa azaltzen da, honako adierazle hauen arabera: inbertsio osoa, dirulaguntza, onuradun diren herritar-kopurua, programa gauatzeko aurreikusitako epea eta 2001. urtean zehar egindako gastua.

3. IZARTU PROGRAMEK GIZARTE-KOHESIOKO HELBURU OROKORRARI EGINIKO EKARPENA

Biziberritze Urbanorako Programa Integralak Euskal Autonomia Erkidegoan egoera txarrean dauden hiriko eremuak gizarte- eta ekonomia-mailan onera ekartzea du helburu. Xede horretarako abian jarriko diren jarduerak (Biziberritze Urbanorako Programa Integralak) batera helduko diete eremu horietako arazo espezifiko guztiei (gizarte-, ekonomia-, ingurumen-mailakoak eta abar), eremu horien lurralde-, ekonomia- eta gizarte-kohesioa lortzeko. Hala, araututako laguntzei dagozkien proiektuek xede hauetariko bat edo batzuk biltzen dituzte:

- a) *Higatutako eta/edo abandonatutako guneak berreskuratu eta hobetzea, tokiko komunitateek haiek erabiltzeko aukera izan dezaten.*
- b) *Tokiko enplegu-ekimenak sustatzea.*
- c) *Diskriminazio positiboko jarduerak egitea, gizarte- eta lan-bazterketaren arriskupean dauden kolektiboen alde.*
- d) *Eremu urbanoak lurraldean integratzea, irisgarritasuna hobetuz.*
- e) *Jarduera urbanoen ingurumen-eragina txikiagotzea helburu duten jarduerak egitea.*
- f) *Informazio- eta komunikazio-teknologiak txertatzea, eremu urbanoetako gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzeko.*

Ildo horretan, txosten hau egitearen ardura duen talde aholkularia **51 IZARTU** programetan aurkeztutako jarduerak helburu orokor horien arabera banatzen ahalegindu da, bai ekintzaren tipologia, bai ekintza horren xedea edo aurreikusitako eraginak aintzat hartuta. Nabarmentzekoa da udalek ez dutela parte hartu aurretiko banaketa hori egiteko orduan; hala ere, udal bakoitzak helburu orokorren arabera egingo duen jarduera-banaketa epe laburrean txertatzea espero dugu.

Gainera, banaketa hori ez da zehatza, proiektuaren izaera integrala dela medio ekintzen helburuetariko asko komunak direlako: enplegua, ingurumena hobetzea, biztanleen bizi-kalitatea hobetzea, gizarte- eta ekonomia-integrazioa, bazterketaren aurkako borroka, informazio- eta komunikazio-teknologia berrien esparruan enpresa-ekimen berriak

sustatzea, lan-hobi berriak... Hala eta guztiz ere, **helburu orokorren arabera banaketa hori udal xedeak hobeto ulertzeko lagungarri gerta daitekeelakoan gaude, gizarte-kohesio handiagoa lortze aldera.**

3.1. GIZARTE-KOHESIOKO HELBURU OROKORRAK

3.1.1. HELBURU OROKORRAK: JARDUERAK


Oro har, 1. ARDATZAREN -Ekoizpen-Ingurunea eta Lana- neurrietariko batean bildutako jarduera gehienek enpresa-ekimena sustatzearen helburu orokorra dute, baina jarduera batzuek zerikusia dute eremuak berreskuratzearekin edo hiri-antolaketa berriarekin, enpresak eta industrialdeak lekualdatzearekin, teknologia berriak erabiltzea sustatzearekin eta ingurumenarekin...

Txosten honen aurreko kapituluan azaldu dugunez, 2. Ardatza da -Oinarrizko Azpiegitura Lokalak- gizarte-kohesioko helburu orokorrari dagokionez xede gehien biltzen dituen. Izan ere, azpiegitura horien azken xedeak era askotako helburuak biltzen ditu: lurraldean integratzea, irisgarritasuna, irudi eta ingurumen urbanoa hobetzea, teknologia berriak, gizarte-bazterketako egoeran dauden edo horren arriskupean dauden kolektiboak gizarteratzea eta ekonomian integratzea... Horretarako, era askotako jarduerak jarriko dira abian: komunikazioak; sarbideak; laguntza-, gizarte- eta kultura- ekipamenduak hobetzea, higatutako eremuak berreskuratzea, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea, instalazio urbanoak berrantolatu, urbanizatu eta hobetzea...

3. ARDATZEAN -Giza Baliabideak eta Gizarteratzea- bildutako proiektuek, bereziki, honako helburu hauek izaten dituzte: tokiko enplegu-ekimenak sustatzea eta diskriminazio positiboko jarduerak garatzea, gizarte- eta lan-bazterketaren arriskupean dauden kolektiboen alde.

Azkenik, 4. ARDATZEAN -Oinarrizko Egitura Lokalak Sortu eta Garatzea- biltzen diren jarduerak helburu honi lotzen zaizkio: higatutako eta/edo abandonatutako guneak berreskuratu eta hobetzea, tokiko komunitateek haiek erabiltzeko aukera izan dezaten. Dena den, helburu hori heterogeneoa denez, jarduera horiek xede ugari **erantzuten diete**: teknologia berriak ezartzea, lurralde- eta gizarte-integrazioa, enpresa-ekimenak...

15. grafikoa: Esku-hartzeko esparru bakoitzean bildutako proiektuen banaketa, beren helburu orokorren arabera



3.1.2. HELBURU OROKORRAK: INBERTSIOAK


Gizarte-kohesioko helburu horietariko bakoitzean konprometitutako inbertsioari begiratzen badiogu, honako helburuak Biziberritze Urbanorako Programa Integralaren inbertsio osoaren ia erdia (106.848.035 €) biltzen duela ohartzen gara: *higatutako eta/edo abandonatutako guneak berreskuratu eta hobetzea, tokiko komunitateek haiek erabiltzeko aukera izan dezaten.*

Ondoren, beste hau dator: *eremu urbanoak lurraldean integratzea, irisgarritasuna hobetuz.* Horrek IZARTU programen inbertsio osoaren herena hartzen du (73.182.360 €).

Tokiko enplegu-ekimenak sustatzea helburuko jarduerak 16,2 milioi €-ko aurrekontua dute eta *diskriminazio positiboko jarduerak garatzea, gizarte- eta lan-bazterketaren arriskupean dauden kolektiboaren alde* helburukoek berriz 14,7 milioi €-koa; hau da, programa integralaren inbertsio osoaren %7,4 eta %6,7 hurrenez hurren.

Azkenik, *ingurumen-eragina txikitzea* helburu duten jarduerak garatzea eta *informazio- eta komunikazio-teknologiak txertatzea* helburuak dira programaren inbertsio osoaren aurrekonturik txikiena biltzen dutenak, 6,2 milioi € eta 2,9 milioi €, hurrenez hurren.

16. arafikoa: Gizarte-kohesioko helburu orokorren inbertsio-porzentajea




3.1.3. HELBURU OROKORRAK: 2001. URTEKO AURRERAPEN FINANTZARIOA

Aurreko ataletan bezalaxe, gizarte-kohesioko helburu orokor hauetan egindako aurrerapena aztertzeke aukera dugu, 2001ean egindako gastuari erreparaturik. Beste kapitulu batzuetan aurreratu dugunez, **aurten egin den gastua, laguntza teknikoko ekintzak kontuan hartu gabe, 13.352.003 €-koa izan da; hain zuzen ere, aldi osorako (2001-2005) aurreikusitako inbertsio osoaren %6.**

Higatutako eta/edo abandonatutako guneak berreskuratu eta hobetzea, tokiko komunitateek haiek erabiltzeko aukera izan dezaten helburuak, bere aurrekontuarekin gertatzen den bezala, 2001. urtean zehar egindako gastu osoaren erdia baino gehiago biltzen du (7,6 milioi €). Ondoren, eremu urbanoak lurraldean integratzea eta tokiko enplegu-ekimenak sustatzea helburuak datoz.

Hala ere, aldi osorako helburu orokor bakoitzean konprometitutako inbertsio osoari dagokionez, **2001. urtean egindako gastuaren arabera aurreratuak daudenak hauek dira**, hurrenez hurren: **Tokiko enplegu-ekimenak sustatzea** (1,8 milioi €-ko gastua egin da, inbertsio osoaren %11), **Informazio- eta komunikazio-teknologiak txertatzea** (295.970 €-ko gastua egin da, inbertsio osoaren %10), eta **higatutako eta/edo abandonatutako guneak berreskuratu eta hobetzea** (7,6 milioi €-ko gastua egin da, inbertsio osoaren %7).

17. grafikoa: Helburu orokorren 2001. urteko aurrerapena, aldi osorako aurreikusitako inbertsio osoari dagokionez egindako gastuaren arabera.



3.2. PROIEKTUEN AZTERKETA KUALITATIBOA, GIZARTE-KOHESIOKO HELBURUEI DAGOKIENEZ.

3.2.1. Higatutako eta/edo abandonatutako guneak berreskuratu eta hobetzea, tokiko komunitateek haiek erabiltzeko aukera izan dezaten. Bereziki bultzatuko dira honako xede hauetarako bidea urratuko duten jarduerak: lana sortzea, gizarteratze handiagoa lortzea eta ingurumen urbanoa nabarmen hobetzea.

Helburu horretarako aurkezten da Biziberritze Urbanorako Programa Integralak finantzatutako jardueren %44. Alor horretan, IZARTU programen %86k hartzen dute parte (41 udalek), eta egindako inbertsioa, 106.848.035 €, IZARTU inbertsio osoaren %49 da.

Higatutako eta/edo abandonatutako guneak berreskuratu eta hobetzearen helburu honetan askotariko ekintzak biltzen dira, bereziki eremu periferikoak edo garrantzi historiko eta soziala izaki hondatuta dauden eremuak gizartean eta ekonomian integratzeko xedearekin. Horrekin, biztanleen bizi-kalitatea hobetu, hondatutako guneak berreskuratu eta lana eta enpresa-ekimenak sustatu nahi dira. Jarduera horien xedeen artean, honakoak nabarmentzen dira:

- *Hondatutako eremuen irudia hobetzea.*
- *Eremu urbanoak arintzea eta auzoen arteko konexioa egitea.*
- *Aisialdirako eta auzokoen arteko komunikaziorako tokiak prestatzea.*
- *Etxebizitza sozialak eraikitzea.*
- *Hirigintzako azpiegiturak eta ekipamendu urbanoak (oinezkoentzako kaleak jartzea, aparkalekuak, kaleak zabaltzea, parkeak...), herritarren bizi-baldintzak hobetzeko.*
- *Ingurumen urbanoa eta periferiako edo higatutako auzoen irudia hobetzea.*
- *Etxebizitzak eta udalaren ondare historiko-kulturaleko eraikinak birgaitu eta berreskuratzea.*
- *Erabilera gatazkatsuak dituzten guneak bereiztea (industria-lurzorua eta bizitegi-lurzorua), auzokoen bizi-kalitatea hobetzeko eta, aldi berean, enpresa-mundua garatu eta hedatzeko.*

- *Eraikinak eraiki eta birgaitzea, kulturari eta aisialdiari lotutako erabileretarako, jarduera-sektore hori garatzea lan-hobi berrietan.*
- *Enpresa-jarduerarako tokiak prestatzea*
- *.....*

2001. urtean zehar egin den gastuaren arabera, **helburu honi lotutako ekintzak %7 aurreratu dira**, helburu horretarako konprometitutako inbertsio osoari dagokionez.

Jarraian, esparru honetan abian jarri diren zenbait jardueraren berri ematen da. **Hautaketa egin da jarduera-kopuruaren edo jarduera horietan konprometitutako aurrekontuaren arabera; orobat, jarduerak berritzaileak izatea eta/edo helburuak adierazgarriak izatea hartu da aintzat.**

ARRIGORRIAGA:

Programan bost jarduera nagusi biltzen dira. Horien %60 helburu honen barnean daude; gastuaren %84ko inbertsioa jarduera horietan konprometitu da, 5 milioi € inguru. Hona ekintza horiek zein diren:

- *Pilaketa dauden toki publikoen trataera: Santa Isabel Parkea eraikitzea, Ollargan Plaza handitzea eta Santa Isabelgo lurpeko parkingaren gainean plaza bat eraikitzea.*
- *Higatutako eremuak berreskuratzea: Nerbioiren ibaiertzak egokitzea, ibaiaren ondoan oinezkoentzako pasealeku bat eraiki eta RENFERen trenbide-ertzak garbitzea eta ezpondak egokitzea.*
- *Ollarganeko Auzo Zaharreko eremu higatuak lehengoratzeta.*

Ekintza horien xedeak askotarikoak dira: hondatutako eremu batzuen irudia hobetzea, auzoak arindu eta elkarren artean konektatzea, auzoan aisialdirako eta kulturarako guneak prestatzea, eta etxebizitza sozialak eraikitzea, sarbide eta zerbitzu egokiak dituztenak.

BARAKALDO LUTXANA:

Programaren jardueren %50 helburu honetan biltzen dira, baina gastuaren %80 -5 milioi €- bideratzen da jarduera horietara. Hona ekintza horiek:

- *Lutxana Munoako BEPB*
- *Lutxana auzoko azpiegiturak berritzea.*

Periferiako Lutxana-Munoa esparruaren berreskuratze urbanoaren helburuaren azpian, ekintza horien xedeak askotarikoak dira: parkea zabaltzea, minusbaliatu fisikoentzako tailerra zabaltzea, etxebizitzak birgaitzea eta urbanizazioan hirigintzako azpiegiturak -hiri-altzariak- eta telekomunikazioetako azpiegiturak txertatzea.

BILBAO ZAHARRA:

Programaren 10 jardueretatik bederatzi helburu honetan biltzen dira, eta inbertsio osoaren %90eko gastua horietan konprometitu da, 6,6 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *Mercedeko Kaia urbanizatzea*
- *Tres Pilares eta Bilbao Zaharrako Plazak urbanizatzea.*
- *Eraikinak birgaitzeko programa.*
- *Fatxadak berreskuratzekeo programa.*
- *Merkataritza-lokalak birgaitzeko programa.*
- *Mehelinak birgaitzeko programa.*
- *Arazo bereziak dituzten eraikinen ezohizko birgaitzea.*
- *Kortes kaleko 16.eko eraikina birgaitzea.*
- *Mariaren Bihotza elizan aisia- eta kultura-azpiegitura.*

Jarduera horiek Bilbao Zaharra hirian integratzea dute xede, hirigintzako azpiegitura berriak ekarriz, etxebizitzak berreskuratu eta birgaitzearen bidez ingurumena eta auzoko irudia hobetuz, eremua aisialdirako eta kulturarako ekipamenduz hornituz...

BILBAO OTXARKOAGA:

IZARTU proiektu honek jarduera bakarra hartzen du barne -*Otxarkoaga urbanizatzea*-, 7 milioi € inguruko gastuarekin. Horren helburua azpiegitura urbanoa oro har hobetzea da (elektrizitatea, ura, saneamendua, bideak...), bertakoen bizi-kalitatea hobetzeko eta auzoari irudi modernoagoa eta positiboagoa emateko.

DONOSTIA ALTZA:

IZARTU proiektu honen 9 jardueretatik lau helburu honetan biltzen dira, eta konprometitutako gastua inbertsio osoaren %30 ingurukoa da, 1,3 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *Birkokapen industrialerako programa: hondakinak eraistea eta Papin-Luzuriagan, Buenavista gainean eta Lardi-Alden kokatutako enpresak lekualdatzea.*
- *Eraikitako ondarea birgaitzea: laguntza-ematea, Parvisa sozietatearen bidez.*
- *Saneamendu-azpiegitura: sare publikoko adarrak Eskalantegi kalean.*
- *Ggarapen komunitarioko plana: lana auzoan egiten duten elkarte guztiek egindako lana biltzea.*

Jarduera horien xedeak era askotakoak dira, eta Altza auzoko zenbait eremu elkartzen dituzte. Hala, batzuek industria-lurzorua birmoldatzea dute xede, alde batetik, eremua bizitoki urbano gisa berreskuratzeko, eta, bestetik, enpresak hedatzeko aukerak dituzten eremu egokiagoetara eramanez, enpresa-garapena errazteko. Beste jarduera batzuek Altza-Eskalantegi auzoa birgaitzea dute helburu, bertakoen bizi-baldintzak hobetzeko. Horretarako, hainbat jarduera burutuko dira toki publikoak berreskuratzeko, zirkulazioaz arduratzeke, aparkalekuak egiteko, oinezkoentzako bideak egiteko, eraikinak birgaitzeko eta irisgarritasuna bermatzeko.

ETXEBARRI:

Jarduera bakarra du *-San Antonio Auzoaren urbanizazio integrala-* eta 2,5 milioi € inguruko gastua. Helburua egun degradatuta dagoen eremu baten alde zaharra birgaitzea da. Xede horretarako, hainbat jarduera burutuko dira: antolamendutik kanpo dauden etxebizitzak deuseztatzea, gunen libreak antolatzea, kale berriak sortzea, kale batzuk zabaltzea eta babestutako etxebizitza berriak eraikitzeke lursailak sortzea.

GORDEXOLA:

IZARTU proiektu honek ere jarduera bakarra hartzen du barne *-Santa Isabel Komentua birgaitzea (erabilera anitzeko zentroa)-*, 1,8 milioi €-ko inbertsioarekin. Helburua multzo historikoa birgaitzea da, eraikinaren egungo tipologia berreskuratuz (kanpoko egitura, itxitura, estalkiak), gizarte- eta kultura-jarduera berri batzuk barne hartzeko.

GUEÑES:

IZARTU programa honek bederatzi jarduera ditu, helburu honetan bilduta. Gastua 2,3 milioi €-koa da. Hona ekintza horiek:

- *Lanen idazketa: Elubarri auzoko urbanizazio-proiektua.*
- *Lanen idazketa. Elubarri auzoko segurtasuna eta osasuna, eta kalitate-kontrola*
- *Lanen idazketa: Elubarri Auzoko etxeen birgaitze-proiektua..*
- *Lanak: Elubarri auzoko urbanizazio-lanak.*
- *Lanak: Segurtasun- eta osasun-plana onartzea eta lanen koordinazioa. Elubarri Auzoa.*
- *Lanak: Elubarri auzoko birgaitze-lanak.*
- *Lanen zuzendaritza: Elubarri auzoa urbanizatzea.*
- *Lanen zuzendaritza: Elubarri auzoa birgaitzea.*
- *Lanen zuzendaritza: Segurtasun- eta osasun-plana onartzea eta lanen koordinazioa. Elubarri Auzoa.*

Hala, programaren xede nagusiak dira bai auzoko urbanizazio osoa aldatzea, bai bide berri bat urbanizatzea. Hori guztia lagungarri gertatuko da sarbideak errazteko eta eraitsi behar diren etxeen ordeztoko etxe berriak eraikitzeke.



LEIOA:

Izartu Programan bederatzi jarduera nagusi azaltzen dira, eta horien %40 helburu honetan biltzen dira. Konprometitutako inbertsioa gastuaren %55ekoa da, 2,8 milioi € ingurukoa. Hona ekintza horiek:

- *Erabilera publikoko tokiak birgaitzea, Txopoetan.*
- *Pikueta aldean lokalak prestatzea*
- *Udal-eskubideei uko egitea kontzesiopeko enpresa baten esleipen-lehiaketan*
- *Langileria kaleko 180. zenbakian erabilera anitzeko erakusketa-aretoa eta posta-zerbitzuarekin lan osagarriak.*

Ekintzok xede hauek dituzte: jolas-, kirol- eta kultura-erabileretarako lokal publikoak lortu eta egokitzea, etxebizitza sozial babestuak eraikitzeke erraztasunak jartzea -etxebizitzak diru publikoz erosiz eta ondoren horiei uko eginez-, eta etxebizitza libreak salneurri txikiagoan eskaintzea.

MUTRIKU:

IZARTU programan biltzen diren hamar jardueretatik zazpi helburu honi dagozkio. Haietan konprometitutako inbertsio osoaren %74ko gastua biltzen dute, 2,4 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *Azoka Plaza*
- *Natur ingurunea berreskuratzea*
- *Hirigune historikoa birgaitzea.*
- *Eguneta Komunitate Zentroaren proiektua eta exekuzioa.*
- *Hiltegi zaharra Gazteleku moduan jartzeko proiektua.*
- *Zabiel Jauregia (Kultur Etxea)*
- *Luardo Etxea*

Proiektuak, beste batzuen artean, honako xede hauek biltzen ditu: eraikinak egokitzea, aisia- eta kultura- azpiegiturak garatzeko; herritarren bizi-kalitatea hobetzea, kultura-, kirol- eta aisia-jardueretarako eremuak sortuz; eta lan-hobi berriak garatzea, aisiari eta denbora libreari lotutako jarduerekin lotuta.

ONDARROA:

Jarduera bakarra dago -*Kamiñalde-Iturribarria ingurunearen garapen urbanistikoa*. Jarduerak UENP-1.3, UENP-1.4 eta UEA-2.1.ean, eta horrek 4 milioi €-ko gastua biltzen du. Proiektuak honako xede hauek ditu: aisia-guneei balioa ematea eta ingurugiroa hobetzea, irisgarritasuna hobetzea eta haustura urbanoa deuseztatzea, hiriko azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzea, etxebizitza sozialak eskaintzea eta jarduera ekonomikoa eta lana sortaraztea.

ORDIZIA:

Guztira 12 jarduera biltzen ditu IZARTU programan, eta horietatik hamar helburu honi dagozkio. Inbertsio osoaren %80 baino gehiagoko gastua hartzen du, 2,8 milioi € inguru. Hona ekintza horiek:

- *"Domingo Unanue" eraikina udal-ekipamendu publikorako birgaitzea*
- *Santa M^a kalea eta Nikolas Lekuona plaza urbanizatzea*
- *Kale Nagusia urbanizatzea*
- *Paza Nagusia eta inguruak urbanizatzea*
- *Santa Maria Etxezaharreta igarobidea urbanizatzea*
- *Torrea ondoko Plaza urbanizatzea*
- *Hiriguneko almendraren ingurua urbanizatzea*
- *Zamaketa-lanetarako tokiak prestatzea*
- *"Zabalgunea"-ren garapen urbanistikorako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak aldatzea*
- *"Zabalgunea"-ren garapen-planeamenduko agiriak, egin beharreko zehaztapen urbanistikoak xehetasunez zehazteko beharrezkoak.*

Jarduera horiek xede ugari dituzte: ondare arkitektonikoa birgaitzea, herritarrek hura kultura-xedetarako erabiltzeko aukera izan dezaten; eremu urbanoak urbanizatzea eta aisialdirako eta elkarbizitzarako gunek bihurtzea, ondare historiko eta kulturala berreskuratuz; enpresa-jarduera errazteko tokiak prestatzea, eta udal-eremuak berreskuratzea, eremuaren garapen integrala ahalbidetzeko.

URDUÑA:

Jarduera guztiak, hiru, helburu honetan biltzen dira, eta inbertsio osoa 5,4 milioi €-koa izan da. Hona ekintza horiek:

- *Eraikuntza-unitateetako jarduera urbanistikoak: hirigune historikoa berrurbanizatu eta instalakuntzak hobetzea*
- *Aduanaren eraikina birgaitzea*
- *Alondegi zaharreko eraikina birgaitzea*

Jarduera hauek honako xede hauek dituzte: hirigune historikoa urbanizatzea eta horren instalazioak hobetzea, herritarren eta bertan bizi direnen bizi-kalitatea hobetzeko: alondegi zaharrean eraikin sozial bat (erretiratuentzako etxea, emakumearen elkartea...) eraikitzea, udal ondare arkitektoniko-kulturalaren mesedetan; aberastasuna sortzea, zerbitzu-sektorea garatuz; eta aduanaren eraikin zaharra bainuetxe-hotel bihurtzea, turismoa sustatzeko...

URTUELLA:

Jarduera bakarra biltzen du programan -*Ralera eta Golifar* auzoen birgaitze urbanoa eta sare urbanoarekin konexioa, trenbidearen lubakiaren estalketaren bidez-. 4,7 milioi € inguruko gastua du. Helburuak honakoak dira: auzo periferiko hauen irudia hobetzea, eremuan bizi direnen mugimendua handitzea, eta azpiegiturak eta toki publikoak hobetzea.

TOLOSA:

Hamabi jarduera biltzen dira IZARTU programaren esparruan. Horietatik hamaika helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren gastuaren %94 biltzen du: 3,7 milioi €.

Hona ekintza horiek:

- *Tolosako hirigune historikoko Plaza Berrian kokatutako azoka birgaitzea.*
- *Oriaren ibaiertzaren berreskurapena antzinako Boinas Elósegui Errotako ingurunean.*
- *Hirigune historikoaren RC2 ingurunearen erabateko berrantolaketa: Oria ibaiaren ibaiertzaren berreskurapena, industria-erabilerak kentzea (eraispinak) eta gizarte-larrialdi egoeretarako tutelatutako etxebizitza multzo bat sortzea.*
- *Boinas Elósegui antzinako errotaren berreskurapena (hirigune historikoaren monumentu-ingurunean kokatutako dago, Oria ibaiaren ibaiertzean)*
- *Arostegieta kalearen berrurbanizazioa: hornikuntza- eta saneamendu-sare berrien instalazioa.*
- *Birgaitze pribatuko jarduera sustatzea (udalak itzuli-beharrik gabeko diru-laguntza batzuk eskaintzen ditu, hirigune historikoko etxebizitzak birgaitzeko).*
- *Lurperatutako zabor-bilguneak instalatzea.*
- *Eraikuntza-unitateetako hirigintzako jarduerak: hirigune historikoa berrurbanizatzea eta instalazioak hobetzea.*
- *Aduanako eraikina birgaitzea.*
- *Alondegi zaharreko eraikina birgaitzea.*
- *Lasao kaleko eskola zaharrak birgaitzea, Kultur Etxea sortzeko.*

Jarduera horien guztien helburua hirigintzako baldintzak eta gizarte-, kultura- eta aisia-ekipamenduak birgaitzea, berrantolatzea eta hobetzea da, Tolosako hirigune historikoan eta inguruetan, aldi berean ingurugiro-baldintzak enpresa-jarduera eta abar hobetuz.

URRETXU:

IZARTU programan hamabost jarduera biltzen dira, eta horietatik 13 helburu honi dagozkio. Gastua inbertsio osoaren %83koa da, 1,6 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *Iparragirre kalea zolatzea*
- *Jauregi kalea urbanizatzea (1. zenbakitik 15.era)*
- *Jauregi kalea urbanizatzea (23. zenbakia.)*
- *Karkaba berreskuratzea (1. zenbakitik 15.era)*
- *Karkaba berreskuratzea (23. zenbakia.)*
- *Hirigune historikoa argiztatzea (etorbidea izan ezik)*
- *Jauregi kalea-Lorategiaren atzealdea berreskuratzea (S.G.E.L.-1.)*
- *Karkaba berreskuratzea (19. zenbakia.)*
- *Elizaren atzealdea urbanizatzea*
- *Hirigune historikoa argiztatzea (etorbidea)*
- *Hirigune historikoa argiztatzea (etorbidea)*
- *Nekolalde kalea urbanizatzea*
- *Txiki kalea berreskuratzea*

Helburu nagusia da toki publikoak berreskuratzea, eremuetako izaera historikoaren arabera, bidez hornituz, azpiegitura-sareak egokituz, herriko argiak arrazionalizatuz, behar diren aisia-azpiegiturak prestatuz eta degradatutako toki publikoak berreskuratuz.

3.2.2. Eremu urbanoan bete gabeko beharren ondorioz sor daitezkeen jarduera berriei lotutako tokiko enplegu-ekimenak sustatzea; hain zuzen ere, hiriko eremuan bertan behar horiei irtenbidea aurkitzeko asmotan.

Helburu honetan biltzen dira Biziberritze Urbanorako Programa Integralak finantzatutako jardueren %13, IZARTU programen %41en, 21 udalen, parte-hartzearekin. Helburu honetan 16.211.825 €-ko inbertsioa egin da, IZARTU inbertsio osoaren %7,4, hain zuzen ere.

Tokiko lan- edo jarduera berrien ekimenak sustatzearen helburu honetan biltzen diren jardueren xedea dagoen enpresa-jarduera sustatzea eta, aldi berean, enpresa-jarduera berriak sortzea da -Teknologia berrien sektorean, lan-hobi berrietan, merkataritzan, industrian eta abar. Hona xede horietako batzuk, zehatz-mehatz:

- *Dagoen enpresa-jarduera sustatzea, informazio- eta komunikazio-teknologia berrien erabilera, kudeaketa-formula berriak, berrikuntza... txertatuz.*
- *Enpresa-ekimen berriak sustatzea informazio- eta komunikazio-teknologia berrien, lan-hobi berrien, aisiaren, kulturaren, turismoaren... inguruan.*
- *Prestakuntza-ekintzak -mintegiak, ikastaroak, tailer-eskolak...-, langileentzat, enpresarientzat, ekintzaile berrientzat, gizarte-bazterketaren arriskupean dauden kolektiboentzat.*
- *Enpresa-ekimen berriak garatzeko beharrezkoak diren tokiak, baliabideak eta ekipamenduak prestatzea: haztegiak, enpresa-zentroak...*
- *Merkataritza indartzea - Zentro anitzeko Eraikina*
- *Enpresa- eta industria-garapena - Industrialdea*
- *Ingurumen urbanoa eta periferiako edo hibatutako auzoen irudia hobetzea.*
- *Udalen ondare historiko-monumentalari lotutako enpresa-ekimenak sustatzea.*
- *.....*

2001. urtean zehar egin den gastuaren arabera, helburu honi lotutako jarduerak %11,4 aurreratu dira, helburu horretan konprometitutako inbertsio osoari dagokionez.

Jarraian, esparru honetako jarduera batzuen berri ematen da. Hautaketa egin da jarduera-kopuruaren edo jarduera horietan konprometitutako aurrekontuaren arabera; orobat, jarduerak berritzaileak izatea eta/edo helburuak adierazgarriak izatea hartu da aintzat:

AMURRIO:

IZARTU programan biltzen dituen hamar jardueretatik lau helburu honi dagozkio, eta konprometitutako inbertsioaren %18ko gastua du, 1 milioi €, gutxi gorabehera. Hona ekintza horiek:

- a) *Ekintzaile berri eta profesionalentzako prestakuntza-ikastaroak*
- b) *Espezializazio-prestakuntza: logistika, garraioa...*
- c) *2 Lan/Ikasketa tailer (El Salvador eraikinaren zaharberritzea) eta Prestakuntza/Lana tailerra (Picaza errota birgaitzea)*
- d) *Aisialdi-Eskola, aisialdiko monitoreak prestatzeko.*

Ekintza horiek honako xede hauek dituzte: dagoen enpresa-jarduera sustatzea - berrikuntza, ICTBk erabiltzea, kudeaketa- eta enpresa-ekimen berriak sustatzea - teknologia berrietakoak, lan-hobi berriekin zerikusia dutenak...- tokiak, baliabideak eta ekipamenduak prestatuz, eta, bereziki, langileentzat, enpresarientzat, ekintzaile berrientzat eta gizarte-bazterketaren arriskupean dauden kolektiboentzat prestakuntza eskainiz.

BASAURI:

IZARTU programan biltzen diren 24 ekintzetatik hamar helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren %26ko gastua dute, 1,8 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *Lan-ekimenetarako Zentroa: Baskonia kaleko eraikina egokitzea.*
- *Enpresa-haztegiak: lokalen birmoldaketa enpresa berrientzat.*
- *Lorezaintza: gizarte-ekonomiako enpresa txiki bat sortzea.*
- *Hautzaindegia: gizarte-ekonomiako enpresa txiki bat sortzea.*
- *Zerbitzu-txekea eta III. sektorea sustatzea: hurbileko merkatuan enpresa-sustapena egiteko ikasketak, eta III sektorearekin lankidetzan jardutea.*
- *Merkataritza suspertzea: teknologia berrietan prestakuntza.*
- *Merkataritza suspertzea: Berrikuntza = Ekipoak egokitzeko laguntza, eta lana sortzea.*
- *Merkataritza suspertzea: merkataritzaren joeren eta sektorearen eboluzioaren azterketak.*
- *Lanerako azterketa-, informazio- eta orientazio-zerbitzua eta autoenplegurako laguntza.*
- *Lana: prestakuntza (10 ikastaro berri, eta horiek emateko 3 gela).*

Jarduerak askotarikoak dira, baina normalean xede nagusi hauek izaten dituzte: osoko prestakuntza- eta lan-zerbitzua eskaintzea; lokalak egokitu, baliabidez eta ekipamendu informatikoz hornitu, eta enpresa-jarduera berriak -hurbileko zerbitzuak, zerbitzu soziokomunitarioak- sortzeko enplegu-prospekzioko merkatu-ikerlanak egitea. Gainera, mikroenpresen jarduera eta lehiakortasuna bultzatu nahi dira -ikerlanak, zerbitzu-txekea, kudeaketa-mailako prestakuntza, ICTBk...-.

IRUN:

Programan biltzen diren bost ekintzetatik bi helburu honi dagozkio, eta horietan inbertsio osoaren %43ko gastua konprometitu da, 2,6 milioi € baino gehiago. Hona ekintza horiek:

- *Bidasoako Azoka Aretoan ekipamendu tertziarioa sortzea (auditorioa).*
- *Perfil berriak sortzea (auditorioarekin zerikusia dutenak)*

Jarduera horien azken xedea honakoa da: ekoizpen- eta merkataritza-trukea indartzea eta kultura- eta kirol-adierazpen jakin batzuk bertan kokatzea. Xede horretarako, feria-barruti bat sortuko da, baita hura ongi egokitu ere: beharrezko ekipamendua jarriko da eta aurrez prestakuntza egokia jaso duten langileak izango ditu.

KARRANTZA:

IZARTU programan zortzi jarduera biltzen dira, horietatik erdia helburu honi dagokio, eta inbertsio osoaren %20ko gastua du, 1,1 milioi €. Hona ekintza horiek:

- e) *Enpresa-haztegia sortzea, ganadu-azoka zaharrear.*
- f) *Karrantza zirkuitu turistikoetan sartzea.*
- g) *Informazio turistikorako bulegoa egokitu eta zerbitzuan jartzea. Bailarako Harrera-Zentroa Concha-Ambasaguas auzoan.*
- h) *Enpresarientzako prestakuntza, haztegian koka daitezen errazteko.*

Jarduera horien bidez, udalean enpresa berriak ezartzea lortu nahi da, jarduerako lehen urteetan zehar haientzako toki egokia eskainiz, baita ekintzaile berriak prestatzea ere, enpresa berriak sortzea sustatzeko. Bestalde, udala jarduera turistikorako zerbitzuz hornitu nahi da, sektore hori bultzatzeko asmoz.

LEGAZPI:

Programan biltzen diren hiru jardueretatik bat helburu honi dagokio -*Burdinaren Euskal Museoa Sortzea*-, eta inbertsio osoaren %50eko gastua biltzen du, 2 milioi € inguru. Xedea nazio-mailako proiektu museologikoa sortzea da, herriak burdingintzan duen tradizio historikoa indartu eta sustatzeko, eta lanpostuak sortzeko.

MUSKIZ:

IZARTU programan biltzen diren hiru jardueretatik bi helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren %86 konprometitzen dute, 1,5 milioi € inguru. Hona ekintza horiek:

- *Proiektuaren idazketa eta lanaren zuzendaritza (erabilera anitzeko eraikina: zinemak, tabernak, merkataritza-zentroak...).*
- *Udalerriaren barruan dagoen erabilera anitzeko eraikinaren exekuzio materiala (zinemak, tabernak, merkataritza-zentroak...).*

Proiektuaren xedea da aisialdi eta astialdirako erabilera anitzeko zentroa eraikitzea, herriko merkataritza indartzeko. Aldi berean, zentroak gizarte-mailako beste zerbitzu batzuk ere hartuko ditu barne, publikoaren eta pribatuaren arteko oreka bilatuz.

SANTURTZI:

IZARTU programan biltzen dituen sei jardueretatik hiru helburu honi dagozkio, eta programa horretan konprometitutako inbertsio osoaren %18ko gastua biltzen du, 1,2 milioi €, gutxi gorabehera. Hona ekintza horiek:

- *Berrindartze Urbanistikoko Eskola Tailerra (igeltserotza)*
- *Berrindartze Urbanistikoko Lan Tailerra (lorenzaintza)*
- *Gizarte-lokalen egokitzearen brigada balioanitz.*

Jarduera hauen xedeak gizarte- eta lan-mailakoak dira. Hala, parte-hartzaileak lan-eta enpresa-munduan sartzea lortu nahi da, prestakuntzaren eta lan-esperientziaren bidez, baita etorkizuneko enpresa-eskariei aurrea hartzea ere, xede horietarako langileak prestatuz.

ZEGAMA:

IZARTU programan biltzen dituen zazpi jardueretatik lau helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren %40 baino gehiago hartzen dute, 1,2 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *Intxausti arean industrialdea*
- *Goierri ehungintza-industria*
- *Arakama Azpikoa Errota*
- *Herriko Ostatua*

Industrialdearen jarduerak, beste batzuen artean, honako xede hauek ditu: industria-jarduera berreskuratzea, enpresa garapena sustatu eta lan-eskaintza sortzea, lan-arrazoiengatiko barne-migrazioa galaraztea, industria-lurzoruko eskualde-eskariari erantzutea, ardatz ekonomiko nagusietatik urrun dagoen eremu hau dinamizatzea eta tokiko oreka sektoriala berrezartzea. Ehungintza-industriaren jardueraren bidez, herriko kulturari lotutako enpresa-jarduera berriak sortzea lortu nahi da, artisauen lana baliatuz eta langabezia-mailan sexuen arteko oreka bilatuz. Hori ez ezik, errota ere zaharberritu nahi da, herriko eskaintza turistikoa garatzeko, baita ostatu zahar bat berreskuratu ere, ostatu-eskaintza berri bat sortu eta sektore turistikoa dinamizatzeko.

3.2.3. Diskriminazio positiboko jarduerak egitea, eremu horietan gizarte- eta lan-bazterketaren arriskupean bizi diren kolektiboen alde (emakumeak, gazteak, etorkinak, etab.), gizarte-kohesio handiagoa lortzeko xedearekin.

Helburu honetan biltzen dira Biziberritze Urbanorako Programa Integralak finantzatutako jardueren %7,5. IZARTU programen %37k -19 udalek- hartzen dute parte. Helburu honetan egindako inbertsioa, 14.703.035 €, IZARTU inbertsio osoaren %7 da.

Gizarte-kohesio handiagoa lortzearren, gizarte- eta lan-bazterketaren aurka borrokatzeko helburu honetan biltzen diren jardueren helburu nagusia honakoa da: kolektibo horien (gazteak, emakumeak, hirugarren adinekoak...) eskura elkartzeko, aisialdirako, gizarteratzeko, laneratzeko eta bizitzeko tokiak jartzea, baita toki horien mantenurako beharrezkoak diren baliabideak ere -giza mailakoak eta materialak-. Azken horren ondorioz, gainera, lanpostu berriak sortuko dira.

2001. urtean zehar egin den gastuaren arabera, helburu honekin zerikusia duten ekintzak %4 aurreratu dira, helburu horretan konprometitutako inbertsio osoari dagokionez.

Jarraian, esparru honetan burutu diren zenbait jardueraren berri ematen da. Hautaketa egin da jarduera-kopuruaren edo jarduera horietan konprometitutako aurrekontuaren arabera; orobat, jarduerak berritzaileak izatea eta/edo helburuak adierazgarriak izatea ere hartu da aintzat:

BARAKALDO GURUTZETA:

Bere programan biltzen diren lau jardueretatik bat helburu honi dagokio - *Emakumeentzako larrialdi-zentroa, Retuerto auzoan*-, eta hartan inbertsio osoaren %35 inguruko gastua konprometitu da, 2,1 milioi €. Zentroak erantzuna eman nahi dio tratu txarren arazoaren alderdi espezifiko bati, beste ezein baliabidez konpondu ezin daitekeena. Hala, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei, seme-alabarik izan ala ez, larrialdi-ostatua eman nahi zaie, baita babeseta eta arreta sozial, psikologiko eta juridikoa ere. Hori ez ezik, esku-hartze batzuek normalizazio eta integrazio soziofamiliarra lortzea izango dute helburu, emakumeen parte-hartze aktiboa sustatuz eta esperientzia-trukea ahalbidetuz.

BERRIZ:

IZARTU programan biltzen dituen zazpi jardueretatik helburu honetan jarduera bakarra ageri den arren -*Kultur Etxea egokitzea*-, horrek inbertsio osoaren %40 inguruko gastua biltzen du, 1,2 milioi €. Ekintza honen bidez Olakueta auzoko ekipamenduak osatzea lortu nahi da, industria-eraikin zaharrean Kultur Etxea ezarriz. Hala, auzoa herriko erdialdeari loturik geratuko da, eta ekipamendu horrek eragin dinamizatzailea izango du ingurunean.

ERMUA:

Programan bederatzi jarduera biltzen dira guztira, horietatik bi helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren %20 baino gehiago biltzen dute, 360.000 €. Hona ekintza horiek:

- *Emakumearen Etxea eraikitzea: berdintasunerako udal-ekimeneko programen koordinazioa.*
- *Auzolan programari udal ekarpena egitea.*

Lehen jardueraren bidez, zentro bat eraiki nahi da, berdintasunaren alde jarduteko udal programak sustatu eta koordinatzeko. Horrekin honakoa lortu nahi da: emakumeek lan-merkatuaren eta oro har gizarteratze eta laneratzearen aurrean duten aukera-desberdintasuna gainditzea. Bigarren jardueraren bidez, AUZOLAN programa garatu eta osatu nahi da. Hain zuzen ere, programa horrek gizarte-bazterketaren edo marjinazioaren arriskupean dauden pertsonak ditu helburu: lehen faseak prestakuntza eta praktikako lan-kontratua biltzen ditu, eta bigarrenak gizarteratze-enpresa bat sortzea du helburu.



PORTUGALETE SAN ROKE:

Programan biltzen diren sei jardueretatik bi helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren %25eko gastua biltzen dute, 1,3 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *Gazte-lokala sortzea (audioteka, hemeroteka, gazte-liburutegia)*
- *Hirugarren adinekoentzako Eguneko Zentroa berritu eta berreraikitzea*

Jarduera horiek xede hauek dituzte: gazteen eta zaharren kolektiboen aldeko diskriminazio positiboa, hezkuntza-maila hobetzea eta lana sortzea, eta bi zentroetan haien ardura hartzeko langileak jartzea.

TRAPAGARAN:

Bere programan bost jarduera biltzen dira, bi helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren %50eko gastua biltzen dute, 2,3 milioi €. Hona ekintza horiek.

- *Erabilera anitzeko eraikin sozial bat eraikitzea*
- *Emakumearen Area eta Aukera Berdintasunaren Agentea sortzea.*

Lehen jardueraren xedea herrian gizarte-baliabideak garatzea da, adinekoek ohizko ingurunean jarraitu ahal izan dezaten. Hala, eraikinak -bi solairutan banatuta-, Erretiratuen Kluba hartuko du lehenean, baita areto nagusi bat eta prestakuntza-eta ikasketa-aretoak eta gazteenentzako ludoteka bat ere; bigarren solairuan eguneko zentro bat sortuko da. Bigarren jardueraren xedea da herrian emakumearen area eta Aukera Berdintasunaren Agentea sortzea. Xede horretarako, honako jarduera hauek jarriko dira abian: emakumea lan-merkatuan sartzea sustatzea; emakumearen presentzia indartzea ordezkari txikia duen sektoreetan; autoenplegu-proiektuak sustatzea...

3.2.4. Irisgarritasuna hobetzearen bidez, hiriko eremuak lurraldean integratzea, periferiatasun-arazoak txikitzeko eta eremu horiek parte diren egitura urbanoarekin bat egiteko ahaleginak eginez.

Helburu honetan Biziberritze Urbanorako Programa Integralak finantzatutako jardueren %23 biltzen da; IZARTU programen %65ek -32 udalek- hartu dute parte. Helburu honetan egindako inbertsioa, 73.182.369 €, IZARTU inbertsio osoaren %33 da.

Eremu periferikoetako eta/edo integratu gabeko eremuetako irisgarritasuna hobetzearen bidez lurralde-integrazioa bilatzen duen helburu honetan honakoa jarduerak biltzen dira, bereziki: tokiak berrantolatzea, hirigintzako baldintzak, komunikazioa, konexioa eta irisgarritasuna hobetzea.... Horien helburua eremu horiek egitura urbanoan hobeto integratzea da. Hona jarduera horien bidez lortu nahi diren xede nagusiak:

- *Bertakoen bizi-kalitatea hobetzeko berrikuntzak: toki libreak, aisialdirako guneak, oinezkoentzako kaleak*
- *Antolakuntzako eta birgaitzeetarako hirigintza-araudi berriak garatzea.*
- *Auzoen artean komunikatzeko eta auzoetara sartzeko hirigintzako arazoak konpontzea: autoz pilotutako bideak, garraioa, aparkalekuen eskasia, eskailera mekanikoak.*
- *Zirkulazioa berrantolatzea: aparkatzeko eremuak murriztea, merkataritza-jarduera errazteko; auzokoen bizi-kalitatea hobetzea.*
- *Industrialdeak eta bizitegiak bereiztea; industria-jarduera indartzea, egitura urbanoaren irudia hobetzea, kutsadura-maila murriztea eta auto-pilaketak gutxitzea.*
- *Egoera penagarrian dauden etxebizitzak desagerraraztea, ingurumena eta paisaia hobetzea...*
-

2001. urtean zehar egin den gastuaren arabera, helburu honi lotutako ekintzak %4 aurreratu dira, helburu horretan konprometitutako inbertsio osoari dagokionez.

Jarraian, esparru horretan egin diren zenbait jardueraren berri ematen da. Hautaketa egin da jarduera-kopuruaren eta jarduera horietan konprometitutako aurrekontuaren

arabera; orobat, jarduerak berritzaileak izatea eta/edo helburuak adierazgarriak izatea ere hartu da aintzat.

DEBA:

IZARTU programan biltzen dituen hiru jardueretatik bat helburu honi dagokio - *Agirretxeko Poligonoaren Barne Erreformatarako Plan Berezia*-, eta konprometitutako inbertsio osoaren %67ko gastua biltzen du, 1,6 milioi €. Barne-erreforma horrek antolaketa berria ekarriko du, eta horrek aukera emango du jende asko duen auzo honen (ia herriko erdia bizi da bertan) bizi-kalitatea igotzeko, toki libre eta aparkaleku gehiago egiteko, espalo handiagoak egiteko eta, oro har, hirigintzako hobekuntzak lortzeko.

EIBAR:

Zazpi jarduerak Matsaria eremua onera ekartzeko helburu honetan biltzen dira - *Urbanizazioa eta sarbideak hobetzea, Matsaria poligonoan*-, eta 3,5 milioi €-ko gastua du. Esparruko antolaketa- eta birgaitze-helburuak lortzeko behar den hirigintzako araudia garatu nahi da, baita beharrezkoak diren hirigintzako lanak zein diren zehaztea ere. Orobat, jabegoaren egitura eta antolaketaren ondorio diren lursailen erregimen juridikoa zehaztu behar dira, baita lurzorua baldintza egokitan jarri ere, hiriguneko eta/edo beste auzo batzuetako industria-jarduerak barne hartu ahal izateko.

ELGOIBAR:

IZARTU proiektuan zortzi jarduera biltzen dira, horietatik lau helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren %80 inguruko gastua biltzen dute, 2,6 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *Gabilondoko bide-lurperatzea: egitura urbanoaren hobekuntza, Goiko Errotako zubia lotuko duen bide berri bat sortuta.*
- *Urasandi auzoan aparkaleku irekiak sortzea.*
- *Urasandi auzoan eskailera mekanikoak instalatzea.*
- *Deba ibaiaren eskuineko ibaiertzean dagoen kolektorearen gainean proposatutako paseoaren urbanizazioa. Arrantzaleen pasealekua*

Jarduerak xede hauek dituzte: auzoen arteko komunikazioko hirigintza-arazoak konpontzea, autoz pilatutako bideak arinduz; aparkaleku-falta arintzea eta eremuaren irudia hobetzea; herriko eremu garaientara heltzeko eskailera mekanikoak instalatzea, bertakoen bizi-kalitatearen mesedetan; eta degradatutako eremuak ingurugiro-mailan onera ekartzea, aisialdi-eremu bihurtuz.

ERANDIO:

IZARTU programak biltzen dituen bost jarduerak helburu honi dagozkio, guztira 5 milioi €-o inbertsioarekin. Hona ekintza horiek:

- *Obieta-Jado-Ibarra kalea oinezkoentzat jartzea: proiektuak eta lanak.*
- *Antonio Trueba kalea zabaltzea: sarbideak zabaltzea, altzari gehiago jartzea, zirkulazioa eta aparkalekuak antolatzea.*
- *Urdaneta kalea zabaltzea.*
- *Kiroldegirako sarreraren desanexioa, parkea: lorategiz hornitutako gune publiko bat berreskuratu eta urbanizatzea eta kalea kiroldegiraino luzatzea.*
- *Metroaren plaza: urbanizazio-proiektuak eta -lanak*

Jarduera hauek aurrekoen xede berdinak dituzte: hirigintzako arazoak konpontzea, zirkulazioa berrantolatuz eta aparkalekuak murriztuz, dendak kanpoaldera zabaltzeko; espazio urbanoaren kalitatea hobetzea, bizitegi-eraikin ugari berrituz; auzoetarako sarbideak hobetzea, industrialdearen eta bizitegiaren hesi fisikoa handituz; eta beste eremu batzuk bide- eta oinezkoentzako azpiegiturez hornitzea.

GALDAKAO:

Helburu honetan lau jardueretariko bat baino biltzen ez den arren -*Usansolo bizitegi-gunearen berreskurapen urbanoa*-, horrek inbertsio osoaren %50 baino gehiago konprometitzen du, 3,6 milioi € baino gehiagoko gastua, hain zuzen. Jarduera honen xede nagusiak honakoak dira: gune osoa onera ekartzea eta bizi-kalitatea hobetzea, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioak berrantolatzea; eta barneko jarduerak indartzea, bereziki, merkataritza.

LEZO-OIARTZUN:

IZARTU programan biltzen diren hiru jardueretatik bat helburu honi dagokio - *Lezoko saihezbidea egitea*-; hartan inbertsio osoaren %55 konprometitu da, 2,2 milioi €.

LAUDIO:

IZARTU proiektuan biltzen diren 10 jardueretatik zazpi helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren %70 baino gehiago biltzen ditu, 3,5 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *Lateorro auzoan zeharkako bide-ardatz bat eraikitzea.*
- *Larraño Auzorako sarbide mekanikoa*
- *Aldaikorrekako plaza urbanizatzea*
- *Alberto Acero plaza urbanizatzea*
- *Aretako Plan Partzialeko urbanizazioa*
- *Vitoria Kaleko urbanizazioa berritzea*
- *Larraño auzoko urbanizazioa berritzea.*

Jarduera hauen helburua hirigintzako eta gizarteratzeko arazoak konpontzea da. Xede horretarako, herriko azpiegitura urbanoa, garraioa eta komunikazioa hobetuko dira, babes ofizialeko etxeak eraikiko dira, eremuetako erabilerak bereiziko dira - industrial eta bizitegia-, aisialdirako eta gizarte-komunikaziorako guneak sortu eta birgaituko dira (plazak), eta aparkaleku-plazen kopurua handituko da. Jarduera horiek merkataritza-sektorearen eta bizi-kalitatearen mesedetan izango dira.

SESTAO:

Bere programan zazpi jarduera biltzen dira, eta horietatik hiru helburu honi dagozkio, inbertsio osoaren %70 baino gehiagoko gastua berenganatuz, 4,6 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *Sestaorekin konexioa Gran Viaren luzapenaren bidez.*
- *Bizitegiak lekualdatzea*
- *Jarduerak lekualdatzea*

Jarduera horiek xede hauek dituzte: oso egoera txarrean dauden etxebizitzak kentzea, komunikabideak antolatzea eta herrira sartzeko bide-sarea hobetzea, hiriko ingurunearen ingurumena eta paisaia hobetzea, aldi berean, lekualdatu beharreko jardueren arazoak murriztuz: gizarte-mailakoak, ekonomia pertsonalekoak eta neqozioetakoak.

SORALUZE:

Sei jarduera biltzen ditu, horietatik bi helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren %70ekoa hartzen, 3,6 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *Erregatxerako sarbide berria*
- *Santa Anarako sarbidea hobetzea eta Deba ibaiaren gaineko zubia.*

Bi ekintza horien bidez sarbideak hobetu nahi dira, eta horrek bide emango du hirigune historikoetako kaleak oinezkoentzako jartzeko, baita zirkulazio astun osoa handik ateratzeko eta kutsadura-maila eta irudi urbanoa hobetzeko ere.

ZALDIBAR:

Jarduera bakarra helburu honi dagokio -*Ibilgailu-zirkulazio astunarentzako ingurune industrialerako sarbidea eraikitzea, Foru kalearekin lotzeko: arauen aldaketa, aurretiko azterketak eta proiektuak, eta lanen exekuzioa*-, eta 3,2 milioi €-ko aurrekontua du. Horren xedea industria-jarduera indartzea da, baita, oinezkoentzat kale bat jartzearekin batera, merkataritza sustatzea ere.

ZUMARRAGA:

Aurrekoak bezala, jarduera bakarra biltzen du programan, eta hura helburu honi dagokio. 3,2 milioi €-ko inbertsioa duen proiektu honen bidez, kamioi-aparkaleku bat eraiki nahi da. Ekipamendu horrek aurreikusitako industria-garapenaren lehen fasea osatzen du, eta bide emango du ibilgailu astunak hirigunetik aldentzeko, baita kamioien zirkulazioa arintzeko ere.

3.2.5. Jarduera urbanoaren ingurumen-eragina txikitzea helburu duten jarduerak garatzea, herritarren ingurunearen gaineko eragina murriztuz eta ingurumena errespetatzea helburu duten portaerak eta praktikak erabiliz.

Helburu honetan biltzen dira Biziberritze Urbanorako Programa Integralak finantzatutako jardueren %4,5. IZARTU programen %11k -10 udalek- hartu dute parte. Helburu honetan egindako inbertsioa, 6.200.418 €, IZARTU inbertsio osoaren %3 da.

Ingurumen-eragina txikitzea helburu duten jarduerak garatzearen baitako ekintzek honako xede hauek dituzte: ekosistema eta herriko ondare biologikoa zaintzea; ingurumen-hezkuntza sustatzea, horretarako tokiak prestatuz; aisialdirako gune berdeak prestatzea; ingurumen-mailan higitutako eremuak hobetzea...

2001. urtean zehar egindako gastuaren arabera, helburu honi lotutako ekintzak %1 aurreratu dira, helburu horretan konprometitutako inbertsio osoari dagokionez.

Jarraian, esparru horretan burutu diren zenbait jardueraren berri ematen da. Hautaketa egin da jarduera-kopuruaren eta jarduera horietan konprometitutako aurrekontuaren arabera; orobat, jarduerak berritzaileak izatea eta/edo helburuak adierazgarriak izatea hartu da aintzat:

ALONSOTEGI:

IZARTU proiektuan biltzen diren 16 jardueretatik lau helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren %25eko gastua biltzen dute, milioi bat € inguru. Hona ekintza horiek:

- *Loiben udal-parke bat eraikitzea*
- *Somo ingurunean baso didaktiko bat sortzea*
- *Alonsotegi Naturgunea Plana martxan jartzea*
- *Zamundiko Santa Quiterian olgetarako eremu bat sortzea*

Jarduera horien bidez, honako helburu hauek lortu nahi dira: esku hartu behar den eremuetako ekosistema eta herriko ondare biologikoa zaintzea; eremu horiek jolas-ekipamenduz hornitzea, naturaz eta ingurumen-hezkuntzaz gozatzeko; herria hiriko gunek berdez, aparkalekuz, aisialdirako eta jolaserako gunez hornitzea; eta garapen sozio-ekonomikoa sustatzea, bereziki landa-eremuan.

BALMAEDA:

IZARTU proiektuan biltzen diren 10 jardueretatik bakar bat dagozkio helburu honi - *Gune berdeak eta pasealekuak San Inazio auzoan*-, eta inbertsio osoaren %9ko gastua biltzen du, 250.000 €. Helburuak honakoak dira: San Inazio auzoa hirigintza-mailan hobetzea eta garatzea, *Kadagua Ibaiaren* eskuinaldeko pasealekua luzatzea, eta ibaiertzeko parke lineala sortzea.

ERRETERIA:

IZARTU Programan bildu diren 5 jardueretatik bi helburu honi dagozkio, eta inbertsio osoaren %40 baino gehiagoko gastua biltzen dute, 1,8 milioi €. Hona ekintza horiek:

- *"Jose Migel Barandiaran" parkea (Pontika auzoaren hobekuntza: landaretzaren tratamendua, zolaketa eta ur-lamina jartzea)*
- *Arramendi Parkea: Naturaren Interpretaziorako zentro bat ezarri eta gotorlekua birgaitzea.*

Proiektuaren xede nagusia gunek irekietako sistemak abian jartzea da. Izan ere, horrek eragina du esparru baten ingurugiro-kalitatean, urbanizazio batean gunek berdeak neurritz jartzeak eragin positiboa baitu herritarren bizi-kalitatean. Bigarren jarduerarekin, Naturaren Interpretaziorako Zentroa ezartzea aurreikusi da, baita gotorlekua birgaitzea ere.

GERNIKA:

IZARTU programan biltzen dituen 10 jardueretatik bakar bat dagokio helburu honi -*URDAIBAICO Biosferaren Erreserbako Ingurumenaren Interpretazio Zentroa edukiz hornitzea (Interpretazio-zentroa, Garapen Jasangarrirako Behatokia, Turismo-Partzuergoa, etab.)*-, eta inbertsio osoaren %26ko gastua du, 681.367 €. Zentroaren helburuak honakoak dira: erreserbaren interpretazio-, hezkuntza-, dibulgazio- eta informazio-baliabideak eskaintzea, bisitarien eskura harrera-leku bat jartzea, erreserba erabili eta kudeatzeko araudiari buruzko informazioa ematea, barneko eta kanpoko turismoa indartzea eta heldu zein gazte eta haurrentzako baliabide didaktiko erakargarria sortzea.

PASAIA:

Aurrekoak bezala, IZARTU proiektuan biltzen diren 8 jardueretatik bakar bat dagokio helburu honi -*Parkeak eta lorategiak sortu eta urbanizatzeko programa*-, eta inbertsio osoaren %11ko gastua biltzen du, 510.860 €. Ekintza honen bidez toki batzuk berreskuratu nahi dira, gunek ireki sailkatuak egon daitezen, horrelako oso toki gutxi dauden gunek batean.

MUNGIA:

IZARTU programan biltzen diren hamar jardueretatik bat helburu honi dagokio -*Oka-Butroe ibaian jarduera integrala*- eta inbertsio osoaren %15eko gastua biltzen du, 510.860 €.

3.2.6. Informazio- eta komunikazio-teknologiak txertatzea, eremu urbanoetako gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzeko. Horrekin batera, eremu horietan lana sortzea eta gizarteratzea sustatuko da.

Helburu honetan biltzen dira Biziberritze Urbanorako Programa Integralak finantzatutako jardueren %3. IZARTU programen %20k -9 udalek- hartu dute parte. Helburu honetan egindako inbertsioa, 2.862.087 €, IZARTU inbertsio osoaren %13 da.

Informazio- eta komunikazio-teknologiak txertatzearen helburu honetan biltzen diren ekintzen bidez, teknologia berriak gehiago erabiltzea lortu nahi da, bai enpresetan bai, oro har, gizartean. Xede horretarako, prestakuntza eskainiko da zentro espezializatu batzuen bidez, eta sentsibilizazio- eta hedatze-kanpainak jarriko dira abian. Hala, lana sortzea sustatuko da, teknologia horiek erabiliz, enpresentzat aukera berriak sortuko direlako eta enpresa-ekimen berri batzuk ere agertuko direlako.

2001. urtean zehar egin den gastuaren arabera, helburu honetan bildutako ekintzak %10,3 aurreratu dira, hartan konprometitutako inbertsio osoari dagokionez.

Esparru horretan burutu diren zenbait jardueraren berri ematen da. Hautaketa egin da jarduera kopuruaren edo jarduera horietan konprometitutako aurrekontuaren arabera; orobat, jarduerak berritzaileak izatea eta/ edo helburuak adierazgarriak izatea ere hartu da aintzat:

BERMEO

Proiektuan biltzen diren zortzi jardueretatik bat helburu honi dagokio - *Telezentro bat ezartzea, Josefinatarren Ikastetxean eraiki behar den eraikinean*-, eta inbertsio osoaren %4ko gastua bereganatzen du, 113.136,93 € ingurukoa. Helburua lan-merkaturatzea erraztea da, baita informazio-teknologia berrien erabilera handitzea ere, haiek eskuratzea erraztuz. Helburu horiek betetzearen, toki fisiko bat eskaini ez ezik, zenbait programa planifikatuko dira. Esaterako, sentsibilizazio-eta alfabetatze-kanpainak, IKTBein kontakturik izan ez duten sektoreentzat; eta telelana eta teleoperadoreak sustatzeko ekintzak, Internet autoprestakuntzarako edo autolanerako erabiltzen hasiak diren pertsonentzat.

DONOSTIA-ALTZA

Aurrekoak bezala, helburu honetan jarduera bakarra ageri du, IZARTU programan bildu dituen bederatzietatik -*Ekipamendu-zentroa: teknologia berriak eta enpresa-haztegia*-, eta inbertsio osoaren %9ko gastua biltzen du, 420.708 €. Jarduera honek honako xede hauek ditu: enpresa-ekimenak sustatzea, bereziki, teknologia berrien alorrean; jarduera ekonomikoa eta lana sortzea; eta degradatutako hiriko eremuak berritzea eta birsailkatzea, haiek eraldatuz eta barnealdeak berrituz.

LOIU

Programan bost jarduera biltzen dira, eta horietatik bat helburu honi dagokio - *Gizarte-eraikina elementu informatikoz hornitzea*-, eta inbertsio osoaren %9ko gastua biltzen du, 6.010 €. Gizarte-aretoa zabaldu nahi da, gazte eta zaharrentzat, ikasketa-gela bat ezarri; gela hori euskarri informatikoz hornituko da, liburutegiarekiko lotura sendotuko da, liburuak gizarte-eraikinera eramango baitira fondoak eskura izateko. Gainera, egungo erretiratuen etxea indartu nahi da.

MENDARO:

Zazpi jardueretatik bi helburu honi dagozkio, eta IZARTU proiektuaren inbertsio osoaren %40 inguruko gastua du, milioi bat €. Hona ekintza horiek:

- *Informazioaren teknologiak sartu eta martxan jartzea udal-zerbitzuetan (Mendaro Interneten).*
- *Mendaroko Telezentroa sortzea.*

Jarduera horien bidez, honako helburu hauek lortu nahi dira: Mendaroko herria informazio-gizartearen erreferente bihurtzea; herrian lana sortzea sustatzea, telelanean eta IKTei lotutako jarduera berrietan; herriko produkzioa dibertsifikatzea; eta enpresentzako zerbitzuen sektoreari bultzada ematea.

PORTUGALETE AZETA:

Programan guztira biltzen diren hiru jardueretatik bat helburu honi dagokio - *Teknologia berrien tokiko zentroa Azetan*-, eta inbertsio osoaren %2ko gastua du, 71.520 €. Teknologia berrien zentroak eremu hori indartzea lortu nahi da, baita hura lan-merkatuaren egungo eskariari egokitutako prestakuntza emateko baliagarri izatea ere, zerbitzu-sektorea hartzen ari den garrantzia aintzat hartuta.

3.2.7. Orobat, dirulaguntzen onuradun izan daitezke jardueren plangintza, kudeaketa, segimendu eta ebaluazioarekin zerikusia duten laguntza-teknikoko jarduerak, baita Programa bere osotasunean ere.

Laguntza tekniko gisa azaltzen da Biziberritze Urbanorako Programa Integralak finantzatutako jardueren %6. IZARTU programen %39k -18 udalek- hartu dute parte. Jarduera-mota honetan 1.757.648 €-ko inbertsioa egin da, IZARTU inbertsio osoaren %0,8.

Jarduera hauen bidez, laguntza teknikoa eskaintzen da, bai IZARTU programa osoarentzat, bai programa barruko proiekturik garrantzitsuenetariko batentzat. Ekintza nagusiak esparru hauetan burutzen dira: proiektuaren ibilbide egokiaren segimendua, ebaluazioa, informazio-ekintzak, parte-hartzea sustatzea, programa hedatzea eta haren publizitatea egitea...

2001. urtean zehar egindako gastuaren arabera, laguntza teknikoarekin zerikusia duten ekintzak %16 aurreratu dira, burututako jardueren %2ko gastua konprometituz.

4. OHAR OROKORRAK

IZARTU programa **jarduera integral aitzindaria** da lurralde-mailan, eta herritarrarengandik hurbilen dagoen kudeaketa-maila du oinarri: udala.

Komunitate-politika guztietan ageri den **kohesio-izpiritua tokiko esparrura eramaten du**; izan ere, ondoren politika horietatik gehienak sektoreka eramaten dira lurralde-mailara.

Programak **inbertsio-mailako eragin nabaria** izan du euskal udaletan. Hasiera batean, Biziberritze Urbanorako Programa Integralaren deialdiak **163.000.000 milioi pezetako inbertsio-asmoak mugiarazi zituen euskal udaletan**, eta horren eraginez Eusko Jaurlaritzak alde **aurretik aurreikusitako laguntza-funtsa handitu du eta 10.000 milioi pezeta gehitu ditu**. Hala, Izartu programei 25.000 milioi pezetako dirulaguntza eman die guztira (150 milioi €, gutxi gorabehera), programak sustatzeko.

Onuradun diren herritarrengan izan duen eragin ekonomikoa, halaber, nabaria da. IZARTU programen inbertsioen batez bestekoa biztanleko 2.000 € ingurukoa da (300.000 pezeta inguru), eta kasu batzuetan, bereziki auzo edo eremu periferikoetan kokatutako proiektuetan, 10.000 eta 15.000 € artekoa da (1,5 - 2,5 milioi pezeta biztanleko).

Programen %40k 4 neurri baino gehiago biltzen dituzte jardueretan. **Proiektuetan hiru edo lau neurrik parte hartzen dute batez beste**, eta horrek argi eta garbi islatzen du proiektuen izaera integrala.

Jarduera gehienak 2. ardatzean, eta zehazkiago, 2.5. neurrian (Antolakuntzarako eta birgaitzeetarako azpiegiturak) bildu izanak aditzera ematen duenez, **udalek aukera hau aprobetxatu dute normalean nork bere baliabideez** (udalez gaindiko laguntzarik edo programarik ezean) **heldu behar dieten inbertsio handiei aurre egiteko**.

Kasu gehienetan, azpiegitura-mailako 2. puntuan biltzen diren **jardueren azken xedea herritarraren eskura zerbitzu publiko berriak jartzea da**, hainbat alorretan: kultura, aisialdia, turismoa, hezkuntza edo gizarte-zerbitzuak. Horrek esan nahi du udal handiak izan ezik, beste euskal herri txikiagoek horrelako zerbitzuen premia dutela. Eraikinak birgaitzea, ondoren herritarrek haiek erabili ahal izateko, proiektu nagusia izan da hainbat programatan.

Jarduera horiek eragin handia izango dute gizarte-kohesioko helburu orokorrean ere. Beste batzuen artean, hona alor honetako jarduerarik nabarmenenak: jarduerak hartzeko ekipamendu berriak, azpiegitura-eskasiak gainditzea, inguru birgaituetan zerbitzu berriak eskaintzeko aukera, gure herrien irudia hobetzeko aukera, lan-politikei laguntza osagarria.

IZARTU programaren izaera integrala lagungarri gertatu da udalen alorren **departamentuen arteko elkarlanerako**. Horrek barne hartzen ditu proiektua eratzea - diagnostiko integrala egitea-, kudeatzea eta abian jartzea.

2001. urteari dagozkion aurrerapen-kopuruek islatzen dute zenbat denbora behar den ekipo eta arlo txikiak dituzten erakundeetan **tamaina honetako proiektuak abian jartzeko**. aurreikusitako proiektuei heltzeko ezinbestekoak dira arauak unean-unean aldatzea, eskaintza publikoak egitea, azterketa teknikoak egitea, langileak kontratatzea eta abar.

Europar egin diren beste saio batzuek aditzera ematen dute **honetako proiektuei heltzen** **zairen lehen urtean prestakuntza- eta plangintza-zereginari eman behar zaiela garrantzi handien, ondoren** proiektuez lortuko diren helburu errealistagoetarantz bideratutako **birplanteamendua egiteko**. Hori dela eta, lehen urte honetan bereziki jarduera batzuen ezaugarriak aldatzeki ekin zaio, baita urtean egin beharreko ekintzak eta lortu beharreko emaitzak birprogramatzeari ere.



1. ERANSKINA

IZARTU

Programen koadro finantzarioak